
**Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
2001**



**Memoria
2001
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia**



**Mémoire
2001
Académie de la Langue Basque
Euskaltzaindia**





Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

2001

Bilbo, 2002

Testu-idazketa: Jose Luis Lizundia, Pello Telleria, Itziar Rekalde, Amaia Okariz
Testu gainbegiratzea: Xabier Kintana

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
E-mail: info@euskaltzaindia.net
Webgunea: www.euskaltzaindia.net

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Ekaingo Kobak, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.
Erandioko Erribera, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-2253-02

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Erakundearen jarduerak	9
I.1. Jendaurreko jarduerak	11
I.2. Batzar bereziak	17
I.3. Beste jarduera batzuk	21
II. Akademia jarduera	27
II.1. Hiztegegintza	31
<i>Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)</i>	31
Hiztegi Batua	35
II.2. Gramatika	39
II.3. Dialektologia (Euskararen Herri Hizkeren Atlas)	41
II.4. Onomastika	47
II.5. Literatura	51
Herri Literatura	51
Literatura Ikerketa	53
Sariketak	55
II.6. Euskara Batua	57
II.7. Jagon saila	59
Corpus alorreko lanak	59
Sustapen alorreko lanak	61
III. Erakunde zerbitzuak	65
III.1. Egoitza eta ordezkariak	67
III.2. Azkue Biblioteka	73
III.3. Argitalpenak	79
IV. Aurrekontuak	83
IV.1. Balantzea	85
V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak	87
V.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak	89
V.2. Estatu Administrazioa	90

V.3. Iparraldeko Herri Aginteak	90
V.4. Udalak	90
V.5. Unibertsitateak	92
V.6. EROSKI	93
VI. Euskaltzaindiaren organigrama	281
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	283
VI.2. Batzordeen zerrenda	285
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama	289
VI.4. Helbideak	293

Aurkezpena

Duela laurehun urte Iruñean argitaratu zen atsotiztegia bada esaera bat honela dioena: Hasiak egina dirudi, asakatuak eder. Eta, izan ere, horixe izan da, Euskaltzaindiaren 2001. urteko oroitidazki hau gainbegiratzear burura etorri zaidan gogoeta.

Euskaltzaindia osatzen dugun gizakiok –euskaltzainok, urgazle-laguntzaileek, kudeatzaile-technikariek, informatikari, biblioteca- eta bulegoko lankideek orok– urtean zehar geure eguneroko lan isilean egiten ditugun era guztietako lan eta lantxoak burutzean, beren bana-banako izaeran maiz izaten duten itxura apalagatik, ez gara behar bezala konturatzen zer nolako eraikuntza mamitzen ari garen. Eta bat-batean, kanta zaharreko gaueko lana eguargiak agertzean, hura begien aurrean azaltzen zaigu, ustekabeen metaturik, egunik egun pixkanaka eginez joan eta gero, osaturik eta eder.

Txikia da gure Herria, bai lurraldez eta bai bizilagun-kopuruan ere. Eta euskaldunok garenak gara, ez gehiago ez gutxiago, geure argi-itzal guztiekin. Egia esan, dugun demografia urriarekin, estatistika ez zaigu oso faboragarri gure artean ustekabeko jeinuak eta supergizonak ager daitezten, baina azken urteotan egiten diharduguna ikustean, zinez esanik, lanaren poderioz eta ekinaz urritasunaren eta txikitasunaren akatsak gainditzeko esperantza sortzen zaigu.

Izan ere, aurtengo oroitidazki honek ederto erakusten duenez, ez da inondik ere gutxi Euskaltzaindiak 2001. urtean egindakoa. Egindako guztiak hurrengo orrialdeetan xehekiago aipatuak direnez gero, ordea, hemen ekintza nabarmenak besterik ez dut aipatuko.

Hiztegigintzari dagokionez, Orotariko Euskal Hiztegiaren XIII. liburua argitaratu da, Hiztegi Batuko Batzordeak, iaz 20.000 hitzeko lehen lexiko batua argitaratu ondoren, aurtun hura hitz gehiagoz osatzeko bere ohiko lanarekin segitzeaz gainera, Akademiaren XII. Barne Jardunaldietan bigarren epealdi honetako lan-prozedura finkatzeko erabakiak eztabaidatu eta onartu ditu.

Gramatika batzordeak ere aurrera segitu du sintaxi arloko arazoak aztertzen eta arauak prestatzen. JAGONET kontsulta zerbitzuak, aurtengo ekitaldian jendaurrean kontsultagai jarriak, ere gero eta harrera hobea izan du.

Hizkuntza Atlasak ere aurrerakada nabarmena ukan du, egindako inkestak informatizatuz. Liburua argitaratzeko prestalana jada oso aurrerturik dago.

Baina zatika eginiko lanek, badute, zorionez, beren amaiera, eta zorioneko jaiotze horrek, haurra mundura ekarri duen ama berriari bezalatsu, aurreko neke-minak ahantzarazi ohi dizkie ordura arteko langileei. Hortaz, aurreko urteetako emaitza biribilenak Euskal Deituren Izendegia eta

Hiztegi Batua izan baziren, aurten, zalantzarik gabe, Onomastika batzordearen Euskal Izendegia. Ponte Izendegia ukan dugu izar distiratsuena, jendearen aldetik harrera ezin hobea izandakoa, Euskaltzaindiak gure Herriaren eguneroko premiei ongi erantzuten jakin duelako froga gisa. Batzorde honek, gainera, Herri- eta eskualde-izendegia argitaratu du, Bizkaiko Gailurren katalogoan ere parte hartuz.

Literatura batzordeak, lantzen diharduen hiztegi bereziaz gain, Justo Mari Mokoroa euskaltzain urgazlearen mendeurrena ospatzeko, iaz antolatutako zituen Euskal fraseologiari buruzko Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu eman dira.

Jagon sailak, azkenik, X. Barne Jardunaldietan bere egitura bikoiztea erabaki zuen, hizkuntza zaintzeko dagozkion zereginak hobeki bete ahal izateko. Corpus arloan, besteak beste, JAGONETeko zerbitzuak hobetzen saiatu da, eta Sustapen arloan V. Jagon Jardunaldiak antolatu ziren Lodosako herrian. Era berean, adierazpen bat prestatu zuen, Euskaltzaindiak bereganatua, gure hizkuntzak Nafarroan duen egoerari buruz.

Luze joko lidake, azkenik, Euskaltzaindiak Unibertsitate-jardueretan, Nazioarteko kongresuetan, herri mailako ekintzetan, eta abar, izandako partaidetza aipatu gura izateak. Eta horiek guztiok, jakina, ez ziratekeen burutuko, gure Akademia gure herriaren garapen sozio-kulturalari egokitzeko, bere oin egitura gaurkotzen eta modernizatzen ahalegindu ez balitz, bai bere Bilboko egoitzan eta bai, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko ordezkaritzetan ere.

Jakina, giza ahaleginok badute era bereko kostu ekonomikoa ere. Eta alde horretatik eskerrak eman behar dizkie Euskaltzaindiak beren diru laguntzekin eguneroko lana erraztu eta bideratu dioten erakunde guztiei, begien bistan denez, horiek gabe, bere eguneroko existentzia eta iraupenaz gainera, ez baitziren gure lan-proiektuak eginetan mamituko. Zorionez, gure gizarte Euskaltzaindiaren emaitzen egiazko balioez behar bezala konturatzen hasia dela ematen du.

Gure politikari eta agintariek, bestalde, gero eta gehiago aitortzen eta aldarrikatzen dute, Euskaltzaindiak betidanik lau haizeetara adierazi duena, hots, euskara gure herriaren kultur ondare nagusia dela, gizarte osoaren jabetza, eta ideologia eta aukera politiko guztietatik landa dagoela. Horrek, logika onean bederen, guztioi baina bereziki herri-ondasunen administratzaile direnei, euskara arautu, zaindu eta jagoteko xede bakarra duen erakunde nagusiaren existentziaz eta bizi-iraupenaz ere arduratzea dakarkigu aldean, aspaldian bere inguruan jotzen duten haize txarrek erremedio gabeko kaltea egin baino lehen.

Xabier Kintana,
idazkaria

I. Erakundearen jarduerak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. JENDAURREKO JARDUERAK

Zizur Txikiko San Fermin Ikastola

Urtarrilaren 19an, Euskaltzaindia San Fermin Ikastolan izan da. Andres Iñigo Nafarroako Ordezkarria, Jose Luis Lizundia Idazkariorde-kudeatzailea, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria izan dira bertan. Ikastola horri bere 30. urteurrena dela eta, esker onez eta omenez, Euskaltzaindiaren bronzeko domina eman zaio.


Ordezkarriak hautatzea

Urtarrilaren 26ko osoko bilkuran honako euskaltzain hauek izendatu dira 2001-2002 urtebikoan Euskaltzaindiaren herrialde-ordezkarri izan daitezen:

- Araban, Henrike Knörr
- Gipuzkoan, Juan Mari Lekuona
- Nafarroan, Andres Iñigo
- Iparraldean, Pierre Charritton

Fundazioaz Lehendakariarekin

Urtarrilaren 31n, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Jose Antonio Arana Martija diruzainak, Javier Saizar Fundazioaren gestiozileak eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-




Gasteizen, Ajuriaenean, urtarrilaren 31n; ezkerretik eskuinera: Javier Saizar, Jose Luis Lizundia, Mari Carmen Garmendia, Juan Jose Ibarretxe, Jean Haritschelhar eta Jose Antonio Arana Martija.

kudeatzaileak bilera egin dute Ajuriaenean Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariarekin eta Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuarekin, *Euskaltzaindiaren Alde Fundazioaren* sortzaile Jaurlaritza, eta patronatukide Lehendakaria izan daitezen proposatzeko.

Gerhard Bähr euskaltzaleari omenaldiak

Otsailaren 8an, Gernikan, Europako Herriak parkean, Gerhard Bähr-en brontzezko irudia jarri dute Bizkaiko Diputazioak eta Gernikako Udalak. Irudiaren egilea Luis Larrinaga da.



Gernikan, Europako Herriak parkean, otsailaren 8an; ezkerretik eskuinera: Josu Bergara eta Hans-Peter Bähr.

Ekitaldi honetan partaide nagusiak hauek izan dira: Hans-Peter Bähr, Josu Bergara Bizkaiko Diputatu Nagusia, Miguel Angel Aranaz Gernikako alkatea, Juan Ramon Larrañaga, Legazpiko alkatea eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua. Aldundiko, udal bietako eta Euskaltzaindikoko beste kargudun batzuk ere izan dira.

Gerhard Bähr-en omenez, Gernikako alkateak, Hans-Peter Bähr-ek eta Bizkaiko Diputatu Nagusiak eman dute hitzaldi bana. Amaieran, Hans-Peter Bähr-ek, bere aitak hainbeste maite izan zuen euskara ikertzeko 500 markoko txeketa eman dio Josu Bergarari, zerbait sinbologikoa bada ere. Ondoren, Josu Bergarak txeketa hori Jean Haritschelharri eman dio, eta Euskaltzainburuak, diru-laguntzagatik eskerrak emanez eta bertan bildu direnak agurtuz, ekitaldiaren amaierako hitzak esan ditu.

Brontzezko irudian, euskalariaren hitz hauek daude idatzita:

*"Zein nahi garaitan Euskalerriko gauzak darraizkit:
batez ere, Euskera maitea".*

Gerhard Bähr.

Otsailaren 10ean, Legazpiko auzoa den Telleriarten, Gerhard Bähr-en Mendeurren Batzordekoek omenaldi bat egin diote. Ekitaldi honetan, Hans-Peter Bähr-ek, mendeurren honetako batzordekideek, Ignacio Arbide Legazpiko idazle eta Gerhard Bähr-en ikertzaileak eta Euskaltzaindiko eragile teknikariak parte hartu dute, besteak beste.

Aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak argitaratzen duen *Bidegileak* bildumako 18. zenbakian Gerhard Bähr-en biografia agertu dela, Elisabete Garmendiak egina.

R. M. Azkueren omenezko hitzaldiak

Euskaltzaindiak, Akademia Erakundearen sortzaile eta lehen euskaltzainburuaren omenez, haren heriotzaren mende Erdiko ospakizunei hasiera emateko, mahai-ingurua antolatu du, otsailaren 22an, Lekeitioko Udaletxean. Hauek izan dira partaideak:

- Andres Urrutia, euskaltzain osoa: "Lekeitioko euskalgintza bi menderen bitartean (1875-1939)".
- Gorka Elordieta, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: "Lekeitioko euskararen doinu-azentua eta intonazioa".
- Mitxel Kaltzakorta, Mondragon Unibertsitateko irakaslea: "Lekeitioko euskalgintza 60-70 hamarkadetan, batez ere".

Biharamunean, 23an, Lekeitioko Udaletxean egin du Euskaltzaindiak otsaileko bilkura. Bilkuraren hasieran, Jaione Murelaga alkateak ongietorria eman die euskaltzainei hitzalditxoa irakurriz.



Lekeitioko Udaletxean, otsailaren 23an: euskaltzainak osoko bilkuran.

Luis Villasanteren hutsartea betetzea

Martxoaren 30ean, Iruñeko ordezkarietan egin den osoko bilkuran, Andolin Eguzkitza Bilbao santurtziarra -euskaltzain urgazlea, Gramatika batzordekidea, Exonomastikako kidea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea- hautatu da euskaltzain oso bezala, Luis Villasanteren hutsartea betetzeko.

Jaime Kerexetaren omenaldia

Elorrioko Udalak, ekainaren 3an, Jaime Kerexeta ohorezko euskaltzain zenari omenaldia egin dio. Sanagustinetxebarriko elizan eman den meza nagusiaren ostean plaka bat jarri da. Jose Antonio Arana Martija joan da Zuzendaritzaren izenean eta hitzaldia egin du; Labayru Ikastegiaren izenean, Adolfo Arejita euskaltzain urgazlea mintzatu da.

P. Lafitteren sortetxean oroitarria

Irailaren 21ean, Piarres Lafitteren Luhusoko Sallaberria izeneko jaiotetxean, oroitarria agerian jarri da, honako testuarekin: *"Etxe hontan sortua da Piarres Lafitte kalonjea, euskaltzaina. Mendeurrenean Euskaltzaindiak. 2001-09-21"*.



Irailaren 21ean, P. Lafitteren jaiotetxean jarri zen oroitarria.

Ekitaldi xume horretan hauek izan dira: Luhusoko alkatea -François Cesat jauna-, Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoak, Piarres Charriton Iparraldeko ordezkaria, beste zenbait euskaltzain oso eta urgazle. Euskaltzainburuak hitz labur batzuk esan ondoren oroitarria agerian jarri da.

Pierre Laffiteri omenaldia

Biharamunean, irailaren 22an, P. Lafitteren beraren bizitza eta lanak zehaztu dituzte haren ikasle ohi ainitzek Uztaritzeko Lapurdi gelan.

Euskal izendegiaren aurkezpena

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms izeneko liburua kaleratu da. Liburu hori egoitzan aurkeztu da irailaren 14an. Hauek izan dira mahaian: Maria Anjeles Iztueta, Justizia sailburua; Inmaculada de Miguel Herrán, Eusko



Egoitzan, irailaren 14an, Ponte Izendegiaren aurkezpena: Mikel Gorrotzategi.

Jaurlaritzaren Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria; Henrike Knörr, buruordea eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria.

Euskaltzaindiaren ordezkaria HABEn

Miren Azkarate Villar izan da, orain arte, Euskaltzaindiaren ordezkari HABEren Patronatoan, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izendatua izan denez gero, haren lekuan Andres Urrutia Jagon sailburua izendatu du Euskaltzaindiak.

Nafarroako Unibertsitate Publikora bisita

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Euskaltzaindiak uztailako osoko bilkuran, euskarak duen egoera dela-eta, egindako adierazpena eman diote Antonio Pérez Prados errektore jaunari Henrike Knörr euskaltzainburuordeak eta Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak, urriaren 3an.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearekin

Urriaren 17an, Andres Iñigo eta Rafael Ruiz de la Cuesta (Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea) bildu dira, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian. Nafarroako Erregistro Zibil eta Bake epaitegietan *Euskal Izendegi* berria nola erabili izan dute hizpide.

Kulturaren Euskal Kontseilua

Eusko Jaurlaritzak azaroaren 7ko 219/2000 Dekretuaren bidez Kulturaren Euskal Kontseilua sortu eta arautu zuen. Kontseilu horretan parte hartzeko, Euskaltzaindiaren ordezkari bat izendatzea eskatu dio M. K. Garmendia Kultura sailburuak Akademiari. Horrela, martxoaren 30eko osoko bilkuran Juan San Martin euskaltzaina izendatu du Euskaltzaindiak. 2001eko apirilaren 11ko EHAAAn (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian) argitaratu da, azkenik, Kontseilu hori osatuko dutenen izen-zerrenda, Juan San Martin barne.

UZEI - Euskaltzaindia

UZEI eta Euskaltzaindiaren hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, orain arte egon den Miren Azkarateren ordezkari Patxi Goenaga izendatu du Zuzendaritzak urriaren 18ko bileran, lehendik dagoen Jose Luis Lizundiarekin batera Akademia ordezkari dezan.



Lodosako Udaletxean, urriaren 19an; ezkerretik eskuinera: Jose Miguel Bidador, Jesús María García Antón, Jean Haritschelhar, Andres Iñigo eta Javier Sainz Pezonaga.

“Nafarroa Oinez 2001”

Lodosako Udaletxean, urriaren 19an, egin du Euskaltzaindiak ageriko bilkura, Nafarroako Erriberako euskara eta euskaltzaleak aztertuz. Hau izan da ekitaldia-
ren egitaraua:

1. Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren agurra.
2. Javier Sainz Pezonaga, Kazetaritzan lizentziadunak: “El euskera en la Ribera de Navarra”.

3. Jose Miguel Bidador, Euskal Filologian lizentziadun eta idazleak: "Eusebio López, impresor y vascófilo lodosano".

I.2. BATZAR BEREZIAK

XII. Barne Jardunaldiak

Euskaltzaindiak urte birik behin egiten ditu Barne Jardunaldiak, 1979tik geroztik. Lehendabizi, Foruan izan ziren eta, harrez geroz, Loiola, Angosto, Lekaroz, Angelu, Lazkao, Ziburu, Zornotza, Legutiano, Iraizotz eta Baionan antolatu dira, beti ere herrialdeak tartekatuz. Aurten Lekeition izan dira, otsailaren 23 eta 24an, Hostal Emperatriz delakoan, eta Resurrección M. Azkue lehen euskaltzainburuaren omenez bere heriotzeko 50. urteurrenkari.

Jardunaldi hauetako lehen partean, Akademiak, bere barne hausnarketa egiteaz gain, dituen egitasmo eta lanen egoera aztertu du eta aurrera begira egin behar diren urratsak markatu. Ohiko batzorde iraunkorren ordenari jarraituz, honela ikusi dira: Iker saileko Orotariko Euskal Hiztegia, Hiztegi Batuko lantaldea, Gramatika, Hizkuntza Atlas, Onomastika, Literatura



Lekeition, Emperatriz Zita Hotelean, otsailaren 23an, XII. Barne Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Jesus Mari Makatzaga eta Joxe Ramon Zubimendi.

eta Euskara Batua; Jagon saileko Corpus eta Sustapen alorrak eta egiturazko batzorde-zerbitzuak: Azkue Biblioteka eta Argitalpen eremua. Batzorde eta egitasmo hauen guztien buru-idazkariak dagozkien txostenak aurkeztu dituzte, jarraian eztabaida irekiz.

Bigarren partean, gai garrantzitsu bi aztertu dira: lehendabizi Euskara Batuko batzordearen izaeraz eta eginkizunaz gogoeta egitea eta, bigarrena, batzordeen eraberritzea.

Euskara Batuko batzordea

Argi gelditu da Euskaltzaindiak, oraingo martxan, zail izango duela gizartearen aurrean duen erantzunkizunari behar bezala aurre egitea. Ondorioz, Arauen onarpeneko prozedura azkartu beharko da, bai gramatika edo onomastika alorretan baina, bereziki, Hiztegi Batuaren bigarren itzuliaren azterketan, 20.000 hitz sartu nahi badira. Azkenean, honako eskema hau onartu da: 1. Hiztegi Batuko lantaldea (+ iritzi-emaileen oharrak). 2. Osoko bilkuran aurkeztu. 3. Euskaltzainen oharrak. 4. Euskara Batuko batzordea (Hiztegi Batuko gaietan soilik). 5. Osoko bilkura, zeinetan oharrak bakarrik eztabaidatuko diren.

Batzordeen eraberritzea

Orotariko Euskal Hiztegiaren, Gramatikaren, Dialektologiaren, Herri Literaturaren, Corpusekoan, Azkue Bibliotekan eta Ekonomian ez da aldaketarik egin.

Aldaketak hauetan izan dira:

- Hiztegi Batuan, Piarres Charritonoren ordez, Xarles Videgain onartu da.
- Onomastikan, Henrike Knörrek utzi du burutza eta Andres Iñigok hartu du kargu hori eta Amaia Usabiaga izendatu da batzordekide bezala. Jean-Baptiste Orpustan batzordekide izatetik batzordearen aholkulari izatera pasatu da. Patxi Ondarra, Elena Martinez de Madina eta Hector Iglesias aholkulari izendatu dira.
- Literatura Ikerketan, Karlos Otegiren ordez Lourdes Otaegi izendatu da idazkari moduan eta Ur Apalategi batzordekide bezala.
- Corpus batzordean, Miren Azkarateren ordez Andres Urrutia batzordeburu izendatu da.
- Sustapen batzordean, Patxi Goenagak Arabako ordezkari izateari utzi dionez, bere lekua Henrike Knörrek hartu du, eta Juan San Martín eta Jose Luis Lizundia aholkulari izendatu dira.
- Argitalpen batzordean, Zuzendaritza kideez gain, Juan San Martín eta Miren Azkarate izendatu dira.
- Lege azpibatzerdean, Jon Castañaresek utzi egin dio kide izateari eta Jose Antonio Arana Martija izendatu da.


Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra

Resurrección M. de Azkue eta Julio Urkixo Euskaltzaindiaren sortzaileen omenez, haien heriotzako mende erdia dela eta, Bilboko Euskalduna Jauregian egin da XV. Biltzarraren lehen zatia, "Euskalgintza XXI. Mendeari buruz" lemapean, irailaren 17, 18 eta 19an. Bigarrena, Pierre Lafitte euskaltzainaren sortzearen ehun urteurrenkari Baionan, hil bereko 20 eta 21ean.

Biltzar honen babesle Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Diputazioa eta Bilboko Udala izan dira, lehen parteari dagokienez. Bigarrena, ordea, Euskadi-Akitania Hitzarmenak babestu du.

Bilbo

- Lehen eguna Hizkuntza erduei eskeini zaie. Hiru hitzaldi eman dituzte Koldo Zuazo, Jean-Paul Bronckart eta Vicent Pitarch ikerleek eta 12 txosten, hamasei lagunen artean.
- Bigarren eguna Hiztegi gintzari eskainia. Hiru hitzaldi,



Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarreko kartelaren eta egitarauaren azala, Eduardo Txillida eskultorearen irudi batez apaindua.



Bilbon, Euskalduna Jauregian, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarrean, irailaren 18an, hiztegegintzari buruzko mahai-ingurua; ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Patxi Uribarren eta Antton Gurrutxaga.

Miren Azkarate, M.A. Sari Maamies, Geraint Jones eta Delyth Prys ikerleenak; 10 txosten, hamaika lagunen artean eta "Gaurko hiztegegintzaren premia eta arazoez" gaiari buruzko mahaingurua, Henrike Knörrrek zuzendua.

- Hirugarren egunean Hizkuntzaren Historia aztertu da hiru hitzaldirekin, Joakin Gorrotxategi, Joseba Lakarra eta Maite Etxenikererenak; sei txosten zortzi lagunen artean eta "Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?" gaiaz Andres Urrutiak zuzendutako mahaingurua.

Bilboko Biltzarrean 288 partaide izan dira eta ekitaldien amaieran, honako adierazpena irakurri da:

"XV. Biltzarraren lehen parte amaitzerakoan, Euskaltzaindiak honako adierazpen hau egiten du, ondorio-biltze gisa:

1. Lehenbizi, euskara eta euskalgintza XXI. mendearen atarian zertan den aztertu nahi izan den honetan azpimarratzekoa da jendearen parte hartze handia. Eta bereziki, unibertsitateek eskaini duten laguntza. Euskaltzaindiak hauek agurtu nahi ditu bereziki eta adierazi aurrerantzean, orain arte bezala, lankidetzan segitu nahi duela.
2. Azken urte hauetan boladan dago nolabait paleolinguistika egitea eta horretarako, besteak beste, hizkuntzen arteko konparazioak egitea. Eta konparazioetan euskara ere sartzen dute zenbaitek. Hala ere, argi dago, konparazioak behar bezala egiteko, euskararen historia ezagutu behar dela. Arlo honetan lan ugari dago egiteko. Euskaltzaindiak ezagutza hori bultzatzea dezaketen lanei eta langileei bere babesa eskaini nahi die.
3. Hiztegegintza alorrari dagokionez ere zenbait gauza argi gelditu dira Biltzarrean. Euskaltzaindiak argitaratu berri duen Hiztegi Batua denek onetsi dute eta bigarren itzuliari bultzada berezia emateko eskaria helarazi diote biltzarkideek Euskaltzaindiari, epeak ahalik eta gehien laburtuz eta eguneroko hitzei sarrera emanaz, maila batean terminologiako kontuak izan arren.

Arlo honetan kanpoko lankideengana jo du Euskaltzaindiak eta bide horri ertsiko dio gainerako lanetan ere. Hain zuzen, hiztegegintza, eta bereziki terminologia lanak, bultzatu nahi ditu Euskaltzaindiak. Jakintza eta teknika arlo desberdinetan diharduten profesionalen lana izango da hori, baina Euskaltzaindiak, Euskal Herri osora zabaltzen duenez bere esparrua, eta euskal gizarteak aitortu eta aitortzen dion itzalagatik, ezin dio uko egin arlo honetako jarduerak laguntzeari eta gainbegiratzeari.

Bestalde, hiztegiarekin eta Euskaltzaindiaren beste esparruekin ere zerikusi garbia dute Corpusek. Orain artekoak baliotsuak izan arren mugatuegiak dira etorkizuneko lanetarako. Horregatik, gaurko euskara jasoko duen Corpus handia biltzeari ekin behar zaio. Euskaltzaindiak lan horiek gidatu eta lagundu egin behar dituela uste du. Ahozko euskararen Corpora ere bideratu behar duela argi dauka.

4. Lekuko euskeren eta euskara batuaren arteko harremanez ere mintzatu da Biltzarrean. Euskaltzaindia, euskararen aldekoa den heinean, euskalkien aldeko agertu da beti. Zernahi gisaz, gogoeta sakona eskatzen du kontu honek eta erregistroeiei, hizkera maileri eta, oro har, ahozko euskarari arreta berezia eskainiko die Euskaltzaindiak behar diren eztabaida guneak sustatuz. Beste herrialdeetan zer egiten den ere kontuan hartuko du.”

Euskara eta teknologia berrien erakusketa

XV. Biltzarraren ildoan, Informatika eta Salmenta-banaketa Zerbitzuetako arduradunek antolatu dute *Euskara eta Teknologia berriak* deritzon erakusketa, Euskalduna Jauregian. Irakaskuntzarako multimedia produktuak, interneteko euskarazko edukiak, hiztegiak eta corpusak, webgunegintza eta programa-zuzentzaileak jarri dira jendearen eskura. Guztira, 117 partaide izan dira erakusketa honetan.

Honako erakunde eta elkarteek erakutsi dituzte beren lanak: Elhuyar, Aurten Bai, Bostak bat, Eusko Ikaskuntza, EIZIE, Code & Syntax, HABE, Susa, IXA, UZEI, Armiarma.com, Ikastolen Elkartea eta Euskaltzaindiak berak.

Baiona

Lafitteren omenezko egun bietan, Baionako Fakultatean, gramatika eta literatura gaiak aztertu dira, areto banatan. Gramatika alorrean, 24 txosten aurkeztu dira hamabost laguneren artean eta, Literaturan, 17 txosten, beste horrenbeste egileren artean.

Baionako biltzar parte hau, CNRS eta Unibertsitateen artean osatzen duten IKER taldeak, alde batetik, eta Euskaltzaindiko Gramatika eta Literatura Ikerketa batzordeek, bestetik, gauzatu dute. 177 partaide izan dira.

I.3. BESTE JARDUERA BATZUK

Omenezko hilberri-txostenak

Apirilaren 27an, egoitzan egindako bilkura irekian, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:

Luis Villasante

Luis Villasante euskaltzainburu zenaren omenezko mintzaldia Juan San Martinek egin du. Villasanteren bizitzaren eta lanen berri emanez, honen historia Euskaltzaindiaren historia ere badela eta euskara batua gauzatzeko izan zuen garrantzia aitortu du hizlariak.



Egoitzan, apirilaren 27an, hilberri-txostenak irakurtzen; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Juan Mari Lekuona, Patxi Uribarren, Juan San Martin eta Paskual Rekalde.

Mariano Izeta

Mariano Izeta nafar euskaltzain ohorezkoari buruzkoa Paskual Rekaldek egin du. Bertsozale, idazle eta itzultzaile bezala Izetak egindako lanak azaldu ditu.

Pedro Pujana

Patxi Uribarren euskaltzain urgazleak irakurri du Pedro Pujana arabar euskaltzain ohorezkoari buruzko hilberri-txostena, haren bizitza eta euskararen aldeko lanak aipatuz: ikasketak, euskal aditzari eskainitako lanak, itzultzaile gisa burututakoak, eta abar.

Bitoriano Gandiaga

Bitoriano Gandiaga bizkaitar euskaltzain ohorezkoa eta poeta ezagunaz mintzatu da Juan Mari Lekuona, haren bizitza eta poetika aztertuz.


Rosa Mari Artza

Jose Luis Lizundiak egin du Rosa Mari Artza zenaren hilberri-txostena. Artza andrea urte luzeetan Euskaltzaindiko langilea izan da, Salmenta eta Banaketa zerbitzuaren ardura-duna.

Ordezkapenak

- Martxoaren 7an, Gernikako Kultur Etxean, Jose Antonio Arana Martija izan da Euskaltzaindiaren izenean, aurtengo KORRIKAREN aurkezpenean.
- Martxoaren 8an, Pausoka-k eta ETBk prestatutako "Hasiberriak" izeneko telesailaren aurkezpenean izan da Juan Mari Lekuona, Donostian, Euskaltzaindiaren izenean.
- Martxoaren 25ean, hil berri den Bitoriano Gandiaga euskaltzain ohorezkoari Mendata jaioterriak egin dion omenaldian Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina eta Ricardo Badiola euskaltzain urgazlea izan dira Erakundearen izenean.
- Apirilaren 3an, Madrilen, Real Academia de la Historia-n, Jose Antonio Ardanazaren hitzaldian, Euskaltzainburuordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Apirilaren 4an, Bilboko Bidebarrieta Udal Liburutegian, Adrian Zelaiaren omenaldian, Andres Urrutia Jagon sailburua izan da Euskaltzaindiaren izenean. Ekitaldi horretan hitzaldia ere eman du: "Adrian Zelaia, foralista".
- Apirilaren 16an, urtero egin ohi den bezala, Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu du Euskaltzaindiak, Piarres Charrittonek ordezkaturik.
- Apirilaren 23an, Gasteizen, Eusko Legebiltzarreko Tomas Moro Aretoan, Erakunde horrek eta Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkarteak antolatutako "Xabier Maria de Munibe" Sariaren banaketa egin da. Ekitaldi horretan Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Apirilaren 28an, San Prudentzioren eta Estibalizko Andre Mariaren omenez egin den harrera-ekitaldira Henrike Knörr buruordea eta Arabako ordezkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 3an, Eibarren egin den Udako Euskal Unibertsitatearen Ikastetxe Nagusiaren inaugurazio-ekitaldian Andolin Eguzkitza euskaltzainak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Bilbon, maiatzaren 6an egin den Euskal Eskola Publikoaren X. Festan Xabier Kintanak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Maiatzaren 17an, Donostiako Miramar Jauregian, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak antolatutako aurkezpenean, *Euskal Literatura Idatzia* izeneko lana CD-ROM euskarrian kaleratu da. Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.

- Maiatzaren 19an, Nafarroako Gobernuak gonbidaturik, Iratxeko Monasterioan dagoen "Julio Caro Baroja" Nafarroako Museo Etnografikoan Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da, *Navarra Etnográfica. La conservación de la memoria* izeneko erakusketaren inaugurazioan.
- Maiatzaren 27an, *Ibilaldia*-n, Bizkaiko Ikastolen aldeko egunaren inaugurazio ekitaldian, Henrike Knörr buruordea izan da Akademiaren izenean.
- Uztailaren 3an, Euskal Herriko Unibertsitateko XX. Udako Ikastaroak / XIII. Europar Ikastaroen inaugurazio-ekitaldira, Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria joan da.
- Uztailaren 2an, Madrilgo "Biblioteca Nacional" delakoan inauguratu den XIX. "Congreso Internacional de Historia de la Cartografía" delakora, Henrike Knörr buruordea joan da.
- Iruñean, uztailaren 16an egin den Udako Euskal Unibertsitateko XIX. Ikastaldiaren sarrera ekitaldira Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria joan da. Jose Mari Satrustegi euskaltzainak irakurri du ikastaldi horren hasierako hitzaldia.
- OLBE / ABAO-k (Opera Lagunen Bilboko Elkartek) opera-denboraldiari hasiera emateko antolatutako ekitaldira Henrike Knörr buruordea joan da.
- Irailaren 9an, Mendatako Udaletxean egin den *Bitoriano Gandiaga eta Mendata* liburuaren aurkezpenean Juan San Martin eta Ricardo Badiola izan dira.



Mendatan, irailaren 9an, Bitoriano Gandiaga eta Mendata liburuaren aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Idoia Mallea, Jose Luis Garai, Gotzon Lobera, Ramon Urresti, Juan San Martin eta Ricardo Badiola.

- Hiriburu honen "Donostiako Plan Estrategikoa: abiaburuan den prozesua" deritzon planaren aurkezpenean Juan Mari Lekuona izan da, Donostiako Alkateak gonbidatuta.
- Euskal Herriko Unibertsitateko 2001-2002 ikasturtearen hasiera-ekitaldian, Gasteizko Industria, Ingeniaritza eta Topografia Eskolan, Henrike Knörr buruordea izan da irailaren 26an.
- Deustuko Unibertsitateko 2001-2002 ikasturtearen hasierako ospakizunean, Andres Urrutia Jagon sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Valladoliden, urriaren 16tik 19ra egin den "II Congreso Internacional de la Lengua Española"n Henrike Knörr euskaltzainburuordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.

- Urriaren 5ean, Ajuriaenea Jauregian euskal gizartearen ordezkariak Lehendakariak egin dien harrera ekitaldian, Henrike Knörr euskaltzainburordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Urriaren, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak urtero ospatzen duen jaialdira Juan Mari Lekuona joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- *Diario de Gipuzkoa* egunkariaren aurkezpenean ere izan da Gipuzkoako ordezkaria.
- Urriaren 21ean, "Nafarroa Oinez 2001"en hasierako ekitaldian, Euskaltzaindiaren izenean, Andres Iñigo izan da.



Lodosako Ikastolan, urriaren 19an, Nafarroa Oinez 2001 dela eta: Jose Antonio Arana Martija eta Andres Iñigo euskaltzainak ikastolako ikasle, irakasle eta arduradun batzuekin.

- Sabino Arana Elkargoak, urriaren 25 eta 26an antolatu duen Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurreneko hasiera-ekitaldian, Andres Urrutiak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Erein argitaletxearen XXV. Urteurrena dela eta, Juan Mari Lekuonak ordezkatu du Euskaltzaindia, Donostian egin den ospakizun-ekitaldian.
- Bilintx liburudendaren eta Zabaltzen liburu-banatzailerearen XXV. urteurrenaren ekitaldian, Juan Mari Lekuona izan da.

Epaimahaiak

- Rafael Ibarquen Basauriko alkate jaunaren eskaerari erantzunez, Euskara Teknikaria hautatzeko, Euskaltzaindiak Xabier Kintana izendatu du, eta Patxi Uribarren ordezkari.
- Getxoko Udalaren eskabideari erantzunez, elizate horretako toponimia iker-lanerako beka erabakitzeko, epaimahaikide bi izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak: Mikel Gorrotxategi eta Ricardo Badiola.

- Hondarribiko euskararen azterketa egiteko deialdia egin du Udalak, eta aurkeztu diren lanak aztertzeko eta deialdia ebatzeko jarri den epai-mahairako ordezkaria izenda dezala eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak Juan Antonio Letamendia euskaltzain urgazlea eta Atlaseko langilea izendatu du epai-mahai horretan parte hartzeko.

Jardunaldiak eta mintzaldiak

- Martxoaren 1ean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolaturiko Terminologia Mintegian Miren Azkarate euskaltzaina izan da. Mintegi hori Miñaon, Arabako Parke Teknologikoan egin da eta Quebec-eko adituak ere bertan izan dira.
- Martxoaren 15ean, Durangon, *Ikazoka 01*-en (Hezkuntza eta Berrikuntza Azokaren) inaugurazioan izan da Zuzendaritza. Azokaren gai nagusia teknologia berriak azterzea izan da, hots, euskarari esparru berriak irekitzea.
- Martxoaren 31n, Gasteizko Justizia Jauregian, *Bake Justiziarri buruzko XI. Jardunaldiak* egin dira, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzak eta Justizia Ministerioko Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak antolatuta. Iaz Bilbon, Donostian eta Iruñean bezala, oraingoan ere Euskaltzaindiak parte hartu du jardunaldiotan. Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak eta Henrike Knörr Arabako ordezkariak hitzaldi bana eman dute *Ponte Izendegi* berriaz eta erregistro zibilaz.
- Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak antolatuta, Hizkuntzen Europako Urtea dela eta, *Hizkuntza Bizikidetzeta eta Aniztasuna Europar Batasunean Euskaditik ikusita* lemapean zenbait ekitaldi antolatu dira maiatzaren 31n. Besteak beste, mahai-inguru bat egin da "Estandarra hizkuntza aniztasunean" deritzan gaiaz, Estatuko beste hiru hizkuntzekin batera. Ekitaldi horretan Henrike Knörr Borras buruordeak ordezkatu du erakundea. Bestalde, egun berean eta beste ekitaldi batean parte hartu du Andres Urrutia Jagon sailburuak, "Giza eskubideak hizkuntza arloan" deritzan txostena irakurriz. Bestalde, egun berean, Juan San Martinek eman du hitzaldia.
- Azpeitian egin diren XIX. Euskadiko Antzerki Topaketak direla eta, Jose Antonio Arana Martijak R. M. Azkueren *Sasi Eskola* antzerki lana aztertu du.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia

- Ekainaren 28an, Donostiako Arantzazu Hotelean Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aurkezpena egin da. Prentsaurrekoan, Juan Mari Lekuona Literatura batzordeburua mahaiburuan izan da.
- Abenduaren 16an, Donostiako Anoeta Belodromoan izan den Bertsolari Txapelketaren finaleko saioan Juan Mari Lekuonak, Literatura batzordeburu eta Gipuzkoako ordezkariak, ordezkatu du Euskaltzaindia eta berak eman dio irabazleari Euskaltzaindiaren "Oteiza" saria.

II. Akademia jarduera

II. AKADEMIA JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Horrez gain, bestalde, arau maila emateko eta gai nagusiak erabakitzeke hileroko osoko bilkurak ezinbestekoak dira.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Urte honetan, 2001eko hasieran, hain zuzen, berriztatu dira horiek guztiak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzainak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegigileak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2001ean egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batuko lantaldea	22
Gramatika batzordea	11
Dialektologia-Atlasa batzordea	10
Onomastika batzordea	13
Herri Literatura azpibatzaordea	10
Literatura Ikerketa azpibatzaordea	10
Euskara Batuko batzordea	*
Jagoneko Corpus batzordea	9
Jagoneko Sustapen batzordea	4
Argitalpen batzordea	2
Azkue Biblioteka batzordea	4
Lege-Ekonomia batzordea	10
XV. Biltzarreko bi batzordeak	7
XII. Barne Jardunaldiak	2
V. Jagon Jardunaldiak	1
GUZTIRA:	125

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.



Goian: Mendatan, uztailaren 13an, Onomastika eta Literatura Ikerketa batzordeetako kideak, Mendatako alkatearekin.

Erdian: Orotariko Euskal Hiztegiako lantaldea, uztailaren 5ean, Donostiako Xalbador bertsolaria kaleko bulego berrian.

Behean: Egoitzan, apirilaren 25ean, Copus batzordeko Euskalkien lantaldea.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Akademia batendako hizteigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.


II.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegiaren xedea, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. Egitasmo hau aurrera eramateko, hitzarmena 1984an sinatu zen. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia eta guztira 16 liburuki izatea espero da.

XIII. liburukia

Azken zuzenketak egin ondoren, 2001ean argitaratu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* XIII. liburukia (*Oam – Peb*). Liburu honek ezaugarri hauek ditu:

- 922 orrialde
- 7.825 sarrera desberdin.



XIV. liburukia

Idazketa

XIV. liburukiaren *Se – Sua* letren arteko sarrerek egin dira (ikus eranskina).

Zuzenketak

Ped - Si zerrendaren testua zuzendu da.

Zuzenketa-lanok epeka egin dira (ikus eranskina):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazio eta zuzenketa: *Ped – Si* zatia landu da.
- d) Zuzenketa filologikoa eta lexikografikoa.

XV. liburukia

Idazketa

XV. liburukiaren *Sub – Tri* letren arteko sarrerek egin dira (ikus eranskina).

1. ERANSKINA

2001eko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
se-	se- pra-/pre-	pra-/pre	se-	se- su-/suz-	su/suz-	su-/suz-	su-/suz-	sos-/soz-	te-/ti-	te-/ti- tr-	tr-
sal-/sap-	sal-/sap- so-/sop-	so-/sop-	so-/sop-	so-/sop-	so-/sop-	so-/sop-	so-/sop-	to-	to-	to-	to- txa-
pl-/po-	pl-/po-	pl-/po- sor-/sos-	sor-/sos-	sor-/sos-	sor-/sos-	sor-/sos-	sor-/sos-	sor-/sos-	—	—	—
q-/r- s-/sak-	q-/r- s-/sak-	q-/r- s-/sak-	s-/sak-	s-/sak-	s-/sak-	ta-	ta-	ta-	ta-	ta-	ta-
pi-	pi- si-	si-	si-	si-	si-	si-	si-	si-	si-	si- ts-/tu-	ts-/tu-

II. ERANSKINA

2001eko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketa fil. eta lexik. makinaratzea
	pa-pe-	pa-	ord-/orr-ota-/hoz-	orri-/osun	oa-/paz-
Urtarrila	pa-pe-	pa-	ord-/orr-ota-/hoz-	orri-/osun	oa-/paz-
Otsaila	pe-pi-		ota-/hoz-pa-/paz-	orri-/osun-pa-/paz-	
Martxoa	pi-		pe-/pi-	pe-/pi-	
Apirila	13. liburukia (2. zuzenk.)	13. liburukia (2. zuzenk.)	pi-/poz-	pe-/pi-	oa-/or-
Maiatza	13. liburukia (2. zuzenk.)	13. liburukia (2. zuzenk.)	poz-/puz-	po-	os-/peb- oa-/peb-
Ekaina	pi-		pra-/puz-	po-/pu-	
Uztaila	pi-		ra-/sal-	po-/pu-	
Abuztua	pl-/pob-		ra-/sal-	po-/pu-sa-	
Iraila	pob-/pra-	ped-/pi-	sal-	sa-	
Urria	pre-/san-	pe-/r-	sam-/sat-sat-/sex-	sa-/se-	pe-/poz-
Azaroa	san-/se-		sat-/sex-	se-/si-	pra-/r-
Abendua	si-	sa-	sex-/siz-	si-/so-	sa-/se-

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkotzat jo zuen euskara batuaren oinarrizko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasoko dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara 2000an, atalez atal. Urte horretan, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Hitzen azterketa

2001ean zehar Hiztegi Batuko lantaldeak 5.642 forma aztertu ditu: *maliziazabeketa* artekoak. Hitz horiek ikusi nahiz berrikusi egin dira lantaldean, kasuan kasuko proposamenara iritsiz.

Forma horiek aztertzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 1.443 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalaneke taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)* corpusak izan dituzte txosten horiek.

Irizpideen txostena eguneratzea

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea zehaztu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu dira forma edo hitzak eta hauetako bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, batzuetan zabalago, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzekoa den, edo okerra den, zein erabil-eremu duen, nola ageri den syntaxian, zein den duen adiera, etab.

Iritzi-emaileak

Euskaltzainez gain, jakintza-gai eta lanbide batzuetako adituek osatzen dute iritzi-emaileen multzoa. Hauei guztiei bidali zaie bigarren itzuliko bigarren hitz-zerrenda (*anabasa – azuzena*), sarrera eta azpisarreraren artean 2.000 bat forma berri jasotzen dituen.

Arauk

Euskaltzaindiak urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:


- a) *a* – *abolizio*
- b) *abonamendu* – *agertze*.

Hizkuntza kontsultak

Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzutik jaso diren galderari erantzun zaie.

Euskaltzaindiak eta UZEI-k Protokoloa sinatu

2000. urtean sinatutako hitzarmen orokorra garatuz, 2001eko Protokoloa sinatu dute Alberto Agirreazaldegi UZEIko kudeatzaileak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzaileak bi erakundeen izenean (UZEI: Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea). Hemen, Euskaltzaindiak emango duen diru-laguntzaren trukean UZEIren Euskaltzaindiarendako lana zein izango den zehazten da:



Egoitzan, ekainaren 14an, UZEIren eta Euskaltzaindiaren arteko Jarraipen Batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Miriam Urkia, Miren Azkarate, Jose Luis Lizundia eta Alberto Agirreazaldegi.

- Hiztegi Batuari dagokionez, M letraren bukaera eta N, Ñ, O, P, Q, R, S, T eta U letrez hasitako hitzen zerrendak eta horien txostenak prestatu eta iritzi-emaielen oharra jaso eta sistematizatu.
- Egungo Euskararen Biketa-lan Sistematiakoari dagokionez (EEBS), 1999ko euskal produkzioa oinarri hartuta, lagin estatistikoa aukeratu, SGML nazioarteko formatuan zuzendu eta kodetu eta automatikoki lematizatu; eta, 1900-1990 bitarteko corpusa SGMLra pasatzen jarraitu.

Hiztegi Batuko bigarren itzulirako prozedura

XII. Barne Jardunaldien aginduz, Hiztegi Batuko 2. itzulia arintzeko prozedura eztabaidatu eta finkatu da Zarautzen, abenduan egindako osoko bilkuran.



Zarautzen, Kultura Etxean, abenduaren 21ean, osoko bilkura; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Maite Etxaniz (Zarauzko alkatea).

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

Menderakuntzari buruzko gaiak

Aurreko urteetan bezala, 2001ean ere menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du eginkizun nagusia batzordeak. 1999. urtean *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-I)* liburukia argitaratu ondoren, geroztik batzordea gramatiken saileko hurrengo liburukia prestatzen ari da, *EGLU VI* izango dena.

2001. urtean honako txosten hauek izan ditu batzordeak eztabaidagai menderakuntzako bigarren liburukiari dagokionez:

- "*ela/elarik* moduzko perpausak"
- "Kontzesio perpausak"
- "Baldintza perpausak"
- "Perpaus kausalak"
- "Denborazko perpausak".

Arau prestaketa

Euskara batuko araugai batzuen proposamen-txosten hauek ere prestatu ditu Gramatika batzordeak:

- "*Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin"
- "*Nahi / gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin"
- "Zehargaldera orokorretako aditz-atzizkia: *-(e)n* eta *-(e)netz*"
- "*-eLAKO* eta *-eN* atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan".

Araugai hauek aurreko urtean prestatu eta eztabaidatu baziren ere, azken idatzaldia 2001ean egin zaie, eta euskaltzain osoei banatu. Euskaltzaindiko osoko bilkurak, egin beharreko ukituak egin ondoren, ontzat eman ditu araugai horiek eta urte amaierako argitaratze bidean jarri arau bezala.

Hizkuntza kontsultak

Asko ugaritu dira iritsi diren hizkuntza-galderak. Galdera gehienak Euskaltzaindia 2001ean eskaintzen hasi den JAGONET zerbitzuaren bidez jaso dira. Horietako batzuk Gramatika batzordean aztertu dira eta beste batzuk, berriz, horretarako izendatuak izan diren batzordekideek aztertu eta erabaki dituzte, gaiaren arabera.

Aipatzekoa da, Euskaltzaindiaren Corpus batzordeko Komunikabideen lantaldetik jaso den galdera-multzoa, bereziki *Euskaldunon Egunkariako* eta *Euskal Irrati Telebistako* kazetariak dituzten zalantza larrienak biltzen dituen.

II.3. DIALEKTOLOGIA

II.3.1. EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 ordutik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2001ean izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz.

Laugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

2001. urtean 17 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan:

- Bizkaia (8): Arrieta, Berriz, Bolibar, Errigoiti, Larrabetzu, Lemoa, Mañaria eta Mungia.
- Gipuzkoa (2): Arrasate eta Oñati.
- Lapurdi (7): Ahetze, Azkaine, Donibane-Lohizune, Hazparne, Hendaia, Senpere eta Uztaritze.

Atal honek duen konplexutasuna dela eta (teknologia tradizionalako garraioak, lurra lantzeko lanabesak, sagardo/ardogintza...) zintak entzutera jo behar izan da sarritan.

1. irud.: laugarren ataleko 4-a datu-sarreraren egoera lurraldeka

4-a ATALA	aurretik eginak	2001ean eginak	oraindik egiteko	guztira
BIZKAIA	28	8	0	36
ARABA	1	0	0	1
GIPUZKOA	23	2	11	36
NAFARROA	20	0	7	27
LAPURDI	3	7	5	15
NAF. BEHEREA	7	0	11	18
ZUBEROA	3	0	9	12
GUZTIRA	85	17	43	145

Datuen lantzea

Urrats hauek egiten dira arlo honetan: lehenik mapak egiten dira, ondoren berrikusi eta zuzendu eta, azkenik, batzordeak onikusia ematen die.

Lehen liburukia

Liburukiarekin batera joango den CDa ikuskatu eta onartu da.

Bigarren liburukia


Liburuki honetako mapen azken berrikusketa egin da, azken gaiko 30ena izan ezik.

Hirugarren liburukia

2001ean 124 galderako informazioa landu da eta dagozkien mapak burutu. Hirugarren liburukiak 271 mapa izango ditu eta une honetan 222 buruturik daude. Bestalde, horietako 158 galdera berrikusi eta zuzendu dira.

Laugarren liburukia

Liburuki honek izango dituen 260 galderatik 12 egin dira 2001. urtean.

2. irudia: lehen lau liburukien egoera**Argitaratze lanen egoera 2001-XII-**

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA
DATU-SARRERA: 4a. ATALA

2001ean informatizatutako herriak

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
101 Getxo						
102 Leioa						
103 Zollo						
104 Sondika						
105 Laukiz						
106 Lemoiz						
107 Uribe-Etxebarri						
108 Zaratamo						
109 Orozko						
110 Mungia						
111 Zeberio						
112 Bakio						
113 Fika						
114 Larrabetzu						
115 Arrieta						
116 Lemoa						
117 Dima						
118 Zeanuri						
119 Errigoiti						
120 Bermeo						
121 Busturia						
122 Euba						
123 Mañaria						
124 Otxandio						
125 Ibaruri						
126 Mendata						
127 Kortezubi						
128 Elantxobe						
129 Berriz						
130 Arrazola (Atxondo)						
131 Elorrio						
132 Bolibar						
133 Gizaburuaga						
134 Lekeitio						
135 Markin-Etxebarri						
136 Ondarroa						
201 Aramaio						
301 Leintz-Gatzaga						
302 Arrasate						
303 Eibar						
304 Araotz (Oñati)						
305 Oñati						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
306 Bergara						
307 Elgoibar						
308 Mendaro						
309 Deba						
310 Azkoitia						
311 Urretxu						
312 Legazpi						
313 Zegama						
314 Ezkio-Itsaso						
315 Zestoa (Arroa)						
316 Azpeitia						
317 Getaria						
318 Beizama						
319 Beasain						
320 Ataun						
321 Errezil						
322 Aia						
323 Orio						
324 Asteasu						
325 Ikaztegieta						
326 Amezqueta						
327 Tolosa						
328 Donostia (Ibaeta)						
329 Lasarte						
330 Andoain						
331 Elduain						
332 Oresa						
333 Hernani						
334 Pasaia						
335 Oiartzun						
336 Hondarribia						
401 Urdiain						
402 Arbizu						
403 Dorrao						
404 Gaintza						
405 Leitza						
406 Etxarri						
407 Oderitz						
408 Goizueta						
409 Ezkurra						
410 Beruete						
411 Igoa						
412 Etxaleku						
413 Suarbe						
414 Sunbilla						
415 Donamaria						
416 Etxalar						
417 Alkotz						
418 Aniz						
419 Lekaroz						
420 Zugarramurdi						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
421 Eugi						
422 Erratzu						
423 Zilbeti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide						
426 Abaurregaina						
427 Eiaurrieta						
501 Hendaia						
502 Donibane-Lohizune						
503 Azkaine						
504 Sara						
505 Senpere						
506 Ahetze						
507 Arrangoitze						
508 Uztaritze						
509 Mugerre						
510 Itxasu						
511 Urketa						
512 Beskoitze						
513 Hazparne						
514 Makea						
515 Bardoze						
601 Aldude						
602 Bidarrai						
603 Baigorri						
604 Arnegi						
605 Uharte-Garazi						
606 Irisarri						
607 Isturitze						
608 Arruta-Sa.						
609 Armendaritze						
610 Esterenzubi						
611 Gamarte						
612 Landibarre						
613 Behorlegi						
614 Arboti						
615 Garruze						
616 Jutsi						
617 Larzabale						
618 Bastida						
701 Phagola						
702 Domintxine						
703 Urdiñarbe						
704 Altzürükü						
705 Larrañe						
706 Altzai						
707 Sohüta						
708 Muntori						
709 Santa-Grazi						
710 Ürrüxtoi						
711 Barkoxe						
712 Eskiula						

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi "Herri eta Herritarren Izenen batzordea" izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.


Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatzen

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 52 deitura finkatu dira batzordean 2001ean zehar.

Euskal izendegia. Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms

Izendegi hau Onomastika batzordeak urte askotan egindako lanaren azken urratsa da. 1966an Aingeru Irigarai euskaltzain osoak proposatuta *Euskaltzaindiak onartutako izenlerroa* argitaratua izan zen, eta orduz geroztik Jose Mari Satrustegi euskaltzain osoak prestatutako *Euskal izendegia* hiru ediziotan argitaratu da, 1972, 1977 eta 1983an. Argitalpen honetako testu egileak Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri Zaratiegi izan dira. Oinarrizko zerrenda Jose Mari Satrustegirena da, eta iritzi emaileak Andres Iñigo, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen eta Juan San Martin izan dira. Liburua argitaratzeko babesak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak eman du.



Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak / Entidades de población de la Comunidad Autónoma Vasca

Hau ere batzordearen azken urteotako lanaren emaitza da. Liburukiaren paratzailea Mikel Gorrotxategi izan da eta laguntzaileak Elena Martinez de Madina -Arabakoan- eta Amaia Usabiaga -Gipuzkoakoan-. Bestalde, Onomastika batzordeko gainerako kideek ere parte hartu dute argitalpen honetako orrazketa eta oharrek egiten.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Galdakaoko eta Bakioko toponimiaren ikerketa gainbegiratu du Mikel Gorrotxategik, batzordearen aginduz. Orobat egin du Fernando Aranberrik Bermeokoarekin.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza egiten aritu den *Izen Geografikoen Glosarioa*-ren prestakuntzan parte hartu dute Patxi Galék eta Mikel Gorrotxategik, batzordearen izenean.

Bizkaiko Gailurren Katalogoa / Catálogo de Cimas de Bizkaia

Bizkaiko Diputazioan, otsailean, Patxi Galék prestatutako liburu horren aurkezpenean Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak ere parte hartu du. Liburu hori Onomastika batzordeak gainbegiratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak Euskaltzaindiari irizpe-na eskatu ondoren. Liburua Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak argitaratu du.

Herri-izendegiak eta eskualdeak

1. Nafarroa Behereko herri-izendegia. Lehenik, Nafarroa Beherea eskualde hauetan banatu da: *Garazi, Baigorri – Ortzaize, Arberoa, Oztibarre, Amikuze eta Agaramunt Jaurreria*. Ondoren, *Garazi eta Baigorri – Ortzaize* eskualdeetako herri-izenak eta herritarren izenak onartu dira batzordean: guztira 32 herri-izen.



Argantzungo Udaletxean, ekainaren 15ean, Onomastika batzordearen bilera; eserita, ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Elena Martínez de Madina eta Zuriñe Rescalvo. Zutik, ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Jose Mari Satrustegi.

2. Trebiñoko herri-izendegia. Lau zatitan banatu da Konterria. Aurten iparraldeko eta ekialdeko 27 herri-izen aztertu eta onartu dira batzordean.
3. Nafarroako eskualde, azpieskualde, merindade eta eremuen izenak berraztertu eta onartu dira. Orobat, Arabako eskualde eta kuadrilen izenak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualdeenak onartu dira.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Lan hau batez ere Euskaltzaindiak 2001ean EUDELekin egin duen hitzarmenari esker egin ahal izan da:

1. Udal eta kontzejuen izenez eta herritar-izenez emandako irizpenak: *Aprikano, aprikanoar; Erroeta, erroetar; Karrantza (Harana), karrantzar; Kexaa, kexaar; Korres, korrestar; Luxo, luxotar; Ziortza-Bolibar; Menoio, menoiar; Sopusuerta Kontzejua; Urduliz, urdulizar; Zuhatza, zuhatzar.*



Mendatako Udaletxean, uztailaren 13an, Onomastika batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Patxi Salaberri Zaratiegi, Andres Iñigo, Jose Mari Satrustegi, Hector Iglesias, Jose Luis Lizundia, Mikel Gorrotxategi eta Henrike Knörr.

2. Herri-izenez eta kale- eta auzo-izenez, herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: Aiara, Amoroto, Antzuola, Areatza, Aretxabaleta, Arraia-Maeztu, Arratzua-Abarrundia, Arrieta, Arrigorriaga, Azpeitia, Barrundia, Beasain, Berriatua, Berriobeiti, Berriz, Bilbo, Derio, Durango, Eibar, Elgoibar, Elizondo, Elorrio, Errenteria, Errigoiti, Garai, Getaria, Getxo, Iurreta, Larrabetzu, Audio, Meñaka, Olaberria, Oñati, Otxandio, Sopusuerta, Tolosa, Ugao, Usurbil, Uztartitze, Vitoria/Gasteiz, Zaldibar, Zamudio, Zarautz eta Zestoa.
3. Beste erakunde hauei erantzun zaie: EUDEL, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Ezkerraldeko Udalen Mankomunitatea, Instituto Geográfico Nacional, SPRILUR (Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-administrazioek industria-guneetarako sortutako enpresa publikoa) eta Dirección General de la Policía (NANA dela eta, euskarazko zeinu diakritikoen grafia akademikoaz).

Banakako kontsultak

Herritarren 16 galderari erantzun die batzordeak, ponte-izenez eta deiturez.

Toponimiako datu-basea

Foru Diputazioak eskatuta, Bizkaiko Toponimiari buruzko datutegia antolatu du batzorde-idazkariak eta Diputazio horren webgunearen diseinua egiten parte hartu, kontsultagai jartzeko.

Euskaltzaindiaren datu-basean Nafarroako toponimia osoa txertatu da, kontsultagai jarritz.

Euskal Onomastikaren datutegia (EODA) gauzatu da eta kontsultagai jarri Euskaltzaindiaren webgunean. Honako datuok kontsulta daitezke:

- Euskal deituren izendegia (euskal era akademikoa eta ohiko idazkera ez akademikoa).
- Ponte izenak (euskal izenak sexuka eta gaztelania eta frantsesezko ordainak).
- Herri izendegia (udalerrri, herri eta auzoen euskal izenak: erdal era, izen ofiziala eta kokalekua). Euskal Herri osoko datuak eskaintzen dira.
- Mendi izendegia (mendien izenak, garaiera, mendigunea eta kokalekua; Euskal Herri osokoak).

Hizkuntza-irizpideez

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, Mikel Gorrotxategi batzorde-idazkariak, Mirari Alberdi Hizkuntza Politikarako langilearen laguntzarekin, erakunde horren toponimia-bilketa lanean erabili zen DEIKERek gauzatutako arautegia berraztertu du, Onomastika batzordeak finkatuak dituen arauen arabera moldatuz. (DEIKER: Deustu Ikerkuntza).

Bizkaiko toponimiaren bilketa dela eta, Deustuko Unibertsitateko DEIKERek ikertzailentzako antolatu duen ikastaroan, Mikel Gorrotxategi batzorde idazkariak bi atal eman ditu toponimia ikerketaz.

Gasteizko Toponimia lantaldea

Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenaren barruan, Toponimia lantaldea lanean ari da, udalerrri barruko toponimia aztertzen. Urte hauetan 400.000 toponimoren sarrerak erregistratu dituzte.

2001ean lehen liburukia prestatzen jarraitu du lantaldeak. Guztira 85.000 toponimo lematizatu ditu guztira, horren ondorioz 4.000 inguru toponimo normalizatuz. Toponimo hauek Malizaeza azpieskualdeari dagozkio eta herriz herri sailkatu dituzte honako hauetan: Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Ehari/Ali, Eskibel, Gardelegi, Gaztelu/Castillo, Lasarte, Mendiola, Monasterioguren eta Vitoria/Gasteiz.

Kartografia ere aztertu dute ahalik eta toponimo gehien kokatzeko asmoz. Ildo bere-tik, herri bakoitzean ahozko inkestan egiten dituzte.

II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura batzordea bi arlo nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen dihardu: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seihun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturakoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epai-mahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa azpi-batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsonen buruzko ikerketa txostenak eginez.


II.5.1. HERRI LITERATURA

Jardunaldietako hitzaldiak argitaratzea

Herri Literaturari buruzko VI. Jardunaldiak 2000ko abenduaren 28an eta 29an egin ziren Bilbon, Justo Maria Mokoroa (Tolosa, 1901 - Bilbo, 1990) euskaltzain urgazlearen mendeurrena ospatuz, Euskal fraseologia gai hartuta.

Jardunaldietako lanak iaz argitaratu ziren, *Euskera*, 2001, 1 zenbakiaren 13-145. orrialde artean, eta baita separata moduan ere, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren laguntzari esker. Hona hemen, banan-banan, lan bakoitzaren berri:

- Lekuona, Juan Mari: "Ongi etorria eta sarrera-hitzak", 17-20. or.
- Corpas Pastor, Gloria: "Corrientes actuales de la investigación fraseológica en Europa", 21-49. or.
- Zuluaga, Alberto: "Fraseología y conciencia social en América Latina", 51-72. or.
- Kaltzakorta, Jabier: "Euskal Fraseologia: historia, oinarriak", 73-87. or.
- Corpas Pastor, Gloria: "En torno al concepto de colocación", 89-108. or.
- Kintana, Xabier: "Justo Mari Mokoroaren lana eta eragina", 109-122. or.
- Aranalde, Joxe Mari: "*Genio y lengua, euskal arima, eta Euskaldunak poema*", 123-136. or.
- Esnal, Pello: "*Ortik eta emendik: euskal loku-zioak eta fraseologia baino ere haratago*", 137-144. or.



- Herri Literatura azpibatzerdea: "Aita Justo Maria Mokoroaren omenez. Euskal fra-seologiaz. Ondorioak", 145. or.

Herri Literatura: VII. Jardunaldiak

2002. urtean egingo diren Jardunaldietako egitaraua prestatzen hasi da batzerdea, gaiak eta txostengileak hautatuz.

Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Batzordekideek emandako hitzaldiak:

- Jabier Kaltzakorta: "Basajaunaren ezaugarriak", Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean.
- Jabier Kaltzakorta: "Euskal eleberrri historikoak", Zarautzen, Olerti etxean.
- Jabier Kaltzakorta: "Basajauna Zuberoan", Bilbon, Bidebarrieta Liburutegian.
- Juan Mari Lekuona: Zaldibian, Kultura Etxean, bertsolaritzari buruz.
- Juan Mari Lekuona: "Oiartzungo kantutegia", Baionan.
- Pello Esnal: Donostian, Altza auzoko Casares Kultura Etxean: "Txirrita eta Altza".
- Pello Esnal: Donostian, Kursaal, Eusko Ikaskuntzaren XV. Kongresuan: "Bertsoa, ikuspegi pragmatiko-diskurtsibotik".

II.5.2. LITERATURA IKERKETA

Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak honako artikulua hauek prestatu eta eztabaidatu ditu:

a) Artikulu luzeak, batez beste 7-8 orrialdekoak:

kazetaritza (berrikusia)
literatura

b) Artikulu ertainak, batez beste 2-3 orrialdekoak:

aktante	funtzio
aldia	kritika feminista
desbideratze	literatura erkatu
epiteto	urruntze
erkartu	zeinu
estrukturalismo	

c) Artikulu laburrak, gehien bat orrialde batekoak:

aldizkatze	mailakatze
antiheroi	makur
arau	mehatxu (<i>conmimatio</i>)
artifizio	mimesi
artxi-testu	nazio literatura
bilakaera	oihu (esklamazio)
diakroniko	olerkari
editorial	parabola
eduki (mami)	paradigma
ekintza	paragoge
elkarrizketa	paralelismo
epentesi	pilaketa (metaketa)
epifonema	poema
erregu	prosazko poema
erreportaia	poeta
exhortazio	prosopopeia
gainegitura	protagonista
gaiztakeria	protesis
gatazka	sinekdoke
geno-testu	sinkroniko
hedapen (<i>amplificatio</i>)	sintagma
heroi	titulu (izenburu, idazpuru)
interpretazio	
isokronia	
karakterizazio	
kazeta	
konparazio	
literatur bilakaera	

Bitoriano Gandiagaren omenaldia

2001eko uztailean, Mendatako Udalak Bitoriano Gandiaga zenari egin dion omenaldian parte hartu du batzordeak.



Mendatan, Udal Liburutegian, uztailearen 13an, Literatura Ikerketa azpibatzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Lourdes Otaegi, Mari Jose Olaziregi eta Jean Haritschelhar.

II.5.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2001eko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: *Bigarren haurra*. Patxi Ezkiaga Lasa.
- Toribio Altzaga antzerki saria: *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*. Alaitz Olaizola Borda.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: *Sagarroiak*. Sonia González Fernández.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*. Jurgi Kintana Goiriena.



Egoitzan, abenduaren 14an, 2001eko literatura-sarien banaketa; ezkerretik eskuinera: Jurgi Kintana Goiriena, Alaitz Olaizola Borda, Patxi Ezkiaga Lasa eta Sonia González Fernández.

Epaimahaikoak honako jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2001eko R. M. Azkue saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10-13 urte	1) <i>I'm zorri</i> 2) <i>Ametsa egia bihurtuko ote da?</i> 3) <i>Lagunen mesfidantza</i>	Eneko Boveda Altube Itxaso Munarriz Aramendi Oihana Ciauriz	Juan Orobiogoitia (Iurreta) Loinazpe (Beasain) Xalbador (Kanbo)
A: olerkia 10-13 urte	1) <i>Zeruko zubia</i> 2) <i>Negu hotza</i> 3) <i>Irrifarra</i>	Leire Aguerre Ibai Kareaga Calle Andres Esnaola Iribar	Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo) Uzturre (Ibarra)
B: narrazioa 14-17 urte	1) <i>Arantzen usaina</i> 2) <i>Treneko gogoetak</i> 3) <i>Berezitasunaren lehia</i> Accesit: – <i>Eguzkiak dakiena, guztia</i> – <i>Zeru gorriak</i> – <i>Ez dut ezer ulertzen</i>	Ihintza Erremundeguy Estibaliz Lizaso Lopetegi Iñigo Galarza Cenzano Irati Goikoetxea Asurabarrena Maitane Mendikute Zulaika Anton Alberdi Estibaritz	Etxepare (Baiona) Laskorain (Tolosa) Lizeoa (Pasaia-Lezo) Beasain Elgoibarko Ikastola Elgoibarko Ikastola
B: olerkia 14-17 urte	1) <i>Hotsik gabeko negarra</i> 2) <i>Kapitalismoaren mozorroa</i> 3) <i>Kafetegi gibeletan heriotzak kafesne usaina</i> Accesit: – <i>Ipuin kontalari txikia</i> – <i>Isiltasunaren suero botilak</i> – <i>Urkabe publikoan</i>	Miren Ibarluzea Santisteban Irati Goikoetxea Asurabarrena Odei Arregi Eizagirre Xabier Perez de Mendiola Maite Uriarte Gil Maite Uriarte Gil	Larramendi (Mungia) Beasain Ikasberri (Azkoitia) Dima Institutua (Elgoibar) Institutua (Elgoibar)

Honako jaun-andre hauek izan dira epaimahaikide sariketa honetan:

- A mailan, Igone Etxebarria, Amagoia López de Larruzea eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan, Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministerioak ematen dituen "Literatura Sari Nazionaletarako", Euskaltzaindiaren izenean 2001eko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira: poesia arlorako, Jon Kortazar; narratiorako, Lourdes Otaegi; saiakerarako, Patri Urkizu; antzerkirako, Aizpea Goenaga; haur eta gazte literaturarako, Manu López Gaseni; itzulpen sarirako, Xabier Kintana eta "Premio Nacional de las Letras Españolas" delakorako Henrike Knörr.
- Bestalde, Andolin Eguzkitza euskaltzain osoa izan da Euskaltzaindiaren izenean Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen literatura lehiaketarako epaimahaian.
- Uitziko Kontzejuan, Nikolas Ormaetxea "Orixe" I. Literatura Lehiaketan, Andolin Eguzkitza eta Juan Mari Lekuona euskaltzainak epaimahaikide izan dira Euskaltzaindiaren izenean: lehena narrazioan eta bigarrena olerkian.
- Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte kide hauek:
 - Juan Mari Lekuonak, Zarauzko *Basarri* bertso jarrien sarian.
 - Joxe Mari Aranaldek, Orixeko *Orix*e bertso jarrien sarian.
 - Zarautzen, bertsolari gazteentzat antolatutako *Lizardi* sarian, Pello Esnal ardura-dun eta epaimahaiko izan da.
- Maiatzaren 22an, Kanbon antolatu den haur eta gazteen "Herri Luma" literatura lehiaketan Piarres Charriton Baionako ordezkaria izan da Akademiaren izenean.

II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Aurten, otsailaren amaieran, egin diren Euskaltzaindiaren XII. Barne Jardunaldietan, aurrerantzean Euskara Batuko batzordetik Hiztegi Batuko hitz-zerrendak soilik pasatzea erabaki da. Hau da, Hiztegi Batuaz kanpoko gaiak -Onomastika edo Gramatika batzordeetatik lezozkeenak, esate baterako- zuzenean aurkeztuko ditu kasuan kasuko batzordeak euskaltzainen osoko bilkuran.

Araugai berriak

Hiztegi Batuko batzordetik edo Gramatika batzordetik etorritako txostenak aztertu eta eztabaidatu ditu Euskara Batuko batzordeak hilabetez hilabete. Euskaltzain osoen hileroko batzarrean aurkeztu dira txostenak, beti ere oharrak egiteko epea izan delarik. Ondoren adierazten diren hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek aztergai:

Hiztegi Batuaren 2. itzulia:

- *aberatsaile* - *abolizionista* hitz-zerrenda
- *abonagarri* - *agertze* hitz-zerrenda
- *agi* - *ahozuri* hitz-zerrenda.

Batzordeak, hitz-zerrenda hauez gain, euskaltzainek horiei egindako 264 hitzeko ohar-txostenak ere aztertu ditu.

Gramatika:

- "Komunztadura aposizioetan" (arau berrikusia)
- "*Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin"
- "*Nahi / gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin"
- "Zehargaldera orokorretako aditz-atzizkia: *-(e)n* eta *-(e)netz*"
- "*-eLAKO* eta *-eN* atzizkiak izenak gobernatuak perpaus osagarrietan".

Hizkuntza kontsultak

"Geografia hitzen zerrenda": *Instituto Geográfico Nacional*-etik egindako irizpen-eskabideari erantzuna emana zion Euskaltzaindiak, baina Euskaltzaindiak berak berraztertu ditu zerrenda horretako zenbait hitz. Zerrendaren izenburuan *geografia* aipatzen bada ere, berez hitz arruntak dira, eta Hiztegi Batuko forma bezala tratatu ditu Euskaltzaindiak. Lehen onartutako zerrenda dela eta, 41 hitzi buruzko oharrak aztertu dira.

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarrita duelako. Bestalde, 1999an egindako X. Barne Jardunaldietan sail hau bi batzordetan banatzea erabaki zen:

- *Corpus* batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratuko da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratuko da.

II.7.1. CORPUS ALORRA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean -Euskaltzaindiaren webgunean- JAGONET zerbitzua, Joxe Ramon Zubimendiren ardurapean. Zubimendi idazlea, euskaltzain urgazlea eta Jagon saileko Corpus batzordeko idazkaria da, eta egun erdiz aritu da lanean JAGONET zerbitzuan, Euskaltzaindiak berariaz izendatutako aholkurariekin.

JAGONET lanean hasi eta bi hilabetera, 2001eko maiatzaren 15ean, bereziki bildu da JAGONETeko erantzule-taldea, hain zuzen ere ordura arte emandako 173 erantzunak banan-banan aztertu eta zuzen-egokiak ote diren erabakitzeko. Azterketaren emaitza guztiz baikorra izan da, ñabardura batzuk gorabehera, eta bide beretik segitzea erabaki.

JAGONETek bi atal eskaintzen ditu Euskaltzaindiaren webgunean (www.euskaltzaindia.net):

1. **Galde-erantzunen datu-basea**, egundaino emandakoak bilduz dihoana. Datu-base horrek 276 galde-erantzun ditu agerian, eta 6.621 bisitari izan ditu 2001ean. Hileroko emaitzak aztertuz gero, argi eta garbi ikusten da bisitarien kopurua gero eta ugariagoa dela (975 bisitari azaroan) eta oporraldian ere zerbitzu ona egiten duela (562 bisitari abuztuan).
2. **Galdeleku informatikoa**, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Bertan jasotako galdera ia guztiak erantzun ahal izan dira 2001ean: zehatzago esateko, 656 erantzun eman dira.

Komunikabideen lantaldea

Kazetaritzan gertatzen diren ohiko zalantzak argitzen aritu da, hedabideetan jokaera bateratua erabakitzeko (batez ere Euskal Irrati Telebistan eta *Euskaldunon Egunkarian*). Horrez gain, eta helburua berbera izanik, esapideak aztertzen aritu da. Bestetik, Hiztegi Batuaren bigarren itzulia osatzeko, komunikabideen alorreko hitz ekarpena ere prestatzen aritu da.

Euskalkien lantaldea

Euskara batuak eta euskalkiek zein leku duten jakiteko, Euskalkien lantaldeak bi galdeketa egin ditu: bata, Bizkaian, eta bigarrena, Nafarroan. Datu horiek -eta beste- bildu eta aztertu ondoren, batzordeak proposamen bateratu bat aurkeztuko dio Euskaltzaindiari, Akademiak, ahal izanez gero, erabaki ofizial bat har dezan euskalkien erabileraz. Horrez gainera, aipagarria da Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko Biltzarrean egin den mahai-ingurua, "Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagai ala arerio?" izeneko.

Inkestei dagokienez, Bizkaian, udal-administrazioa bakarrik zuzendu da galdeketa, hamar udaletara. Nafarroan, berriz, hezkuntzara, administrazioetara eta komunikabideetara 203 inkesta igorri dira.

II.7.2. SUSTAPEN ALORRA

V. Jagon Jardunaldiak

Jardunaldi horiek 2001eko urriaren 19an egin dira Lodosako Udaletxean, Nafarroako Ikastolen "Nafarroa Oinez" jaia dela eta. Hona hemen egitaraua:

- Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren agurra.
- Joan Solà, Bartzelonako Unibertsitateko katedraduna: "Territorio y lengua catalana, situación actual".




Lodosako Udaletxean, urriaren 19an. VI. Jagon Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Francisco Fernández Rei, Joan Solà, Andres Urrutia, Jean Harischelhar, Patxi Goenaga eta Andres Iñigo.

- Francisco Fernández Rei, Santiago de Compostelako Unibertsitateko irakaslea eta Real Academia Galegako kidea: "La situación del gallego en Asturias, León y Zamora".
- Erramun Baxok, euskaltzain urgazle eta Iparraldeko Euskal Kulturaren Erakundekoa: "Euskalgintza hitzartua Ipar Euskal Herrian."
- Andres Urrutia, Jagon sailburu eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea: "Euskara guztion ondarea / El euskara patrimonio común".
- Juan Cruz Alli, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea: "Perfiles institucionales - La lengua vasca en Navarra".

Euskaltzaindiak, bere agerkarian argitaratu ditu Jardunaldi horietako hitzaldiak eta txostenak: *Euskera*, 2001, 2. zenbakian.

Euskara Nafarroan

Gobernuak kaleratu duen 372/2000 Dekretua dela eta, euskarak Nafarroan duen egoeratik, batzordeak arlo honetan egin du lan. Euskaltzaindiak gai horretaz martxoan egitekoea zuen ageriko bilkura prestatzeko aurrelanak egin ditu Sustapen batzordeak.



Iruñean, Gurutze plazako Institutuan, martxoaren 29an, bilkura berezia; ezkerretik eskuinera: Jose Mari Satrustegi, Andres Iñigo, Jean Haritschelhar, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta eta Juan San Martin.

Euskaltzaindiak, 2001eko martxoaren 29an bilkura irekia eta berezia egin du, "Euskara Nafarroan" gai hartuta. Bilkura hau Iruñean egin da, Gurutze plazako institutuan. Txosten hauek irakurri dira:

- "Nafarroako euskararen azkenaldiko historia": Jose Mari Satrustegi, euskaltzaina.
- "Euskararen egungo egoera Nafarroan": Andres Iñigo, euskaltzaina.
- "Euskararen egoera Nafarroan: Euskaltzaindiaren egitekoea": Andres Urrutia, euskaltzaina.
- "Euskararen legeztapen demokratikoari dagokionez, Nafarroan galdutako aukera": Patxi Zabaleta, euskaltzaina.
- "Giza eskubideak, era orokorrean eta hizkuntzaren arloan": Juan San Martin, euskaltzaina.

Sustapen batzordeak prestatutako adierazpena Euskaltzaindiak bilkura berezian onartu du. Euskaltzaindiak, 2001eko martxoaren 30ean, Iruñeko ordezkartzan egin duen prentsaurrekoan kaleratu du adierazpen hori:

"1918an Nafarroako Foru Diputazioarekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia. 573/1976 Erret Dekretuaren bidez Euskararen Erret Akademia bihurtu zen. Euskaltzaindiaren helbu-

ruak, besteak beste, euskararen eskubideen jagotea, erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea dira. Erakunde honen estatutuak, oraintsu, 272/2000, otsailaren 25eko Erret Dekretuaren bidez aldatuak izan dira. Euskararekiko kontsultetan erakunde ofiziala da eta hizkuntza honen alorrean berari dagokio ziurtagiriak, argibideak eta diktamenak eskaini-ematea.

Euskaltzaindiak sorreratik bertatik etengabe jardun du –eta badihardu egun



Iruñean, ordezkaritzan, martxoaren 30ean, adierazpena aurkezten; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Jean Haritschelhar eta Andres Iñigo.

ere– Nafarroako Foru Erkidegoan, euskararen babesa, ikerkuntza eta sustatze lana ziurtatzeko asmoz. Hartara, Nafarroako gobernu erakundeei eman die hizkuntza aholkularitza eta horiek, zeinahi den ere indarreko erregimena, beti erakutsi dizkiote beren abegi eta onginahia, jakinik Euskaltzaindiaren egitekoa edozein lerrakera politiko edo ideologikoren gaintetik dagoela.

Euskaltzaindiak aitortzen du nafarrek, urtez urte, gero eta euskara gehiago eskatzen dutela. Gizarte zereginetan esanguratsu oso gertatzen diren hainbat esparrutan –hezikuntza, komunikabide edota administrazio publikoetan– begi bistakoa da nafarrek erakusten duten kezka, lingua navarrorum ondare kulturalaren erabilera nafar nortasunaren funtsezko osagaia izan dadin.

Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan salatu ditu giza eskubideak, euskararen aldeko babesa, hizkuntzagatiko diskriminazio eza, hizkuntzen pausoz pausoko garatzea eta ofizialkidetza oinarriak hausten dituzten arauak. Ildo beretik salatzen ditu Nafarroako Gobernuak euskarari buruz berrikitan onetsi dituenak, batez ere, 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren 11koa. Arau horiek, besteak beste, Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Hobekuntza eta Euskararen legea urratzen dituzte; orobat, Espainiako Estatuak Nazioarteko mailan berretsi dituen arau eta itunak. Deitoratzen du, halaber, erakunde honek, legeria berri horri buruzko aholkua berari eskatu ez izana, Nafarroako Gobernuari eginiko erregua tartean izan arren.

Hori dela eta, Euskaltzaindiak, Iruñean osoko batzarra egin eta adierazpen hau plazaratu nahi du Nafarroako gizartearen aurrean, Espainiako Estatuaren agintari nahiz hizkuntza erakunde ofizialetara igortzeko, baita Europa eta nazioarteko erakundeetara ere, egoera berri honen jakitun izan daitezen. Bestetik, Euskaltzaindiak berresten du euskararen ardura duten erakunde publiko eta pribatu guztiekin lankidetzan aritzeko gogoia eta konpromisoa. Horren xedea, beraz, argi dago Euskaltzaindiarentzat: euskara gizartearen lokarri sendo bihurtzea Nafarroako Foru Erkidegoan. Bide beretik, Euskaltzaindiak, legez dituen ahalmenak erabilia eta Jagon Sailaren bitartez, Nafarroan eta beste herrialde euskaldunetan euskara babesteko bere egitekoa beteko du”.

Euskaltzainburuak zenbait gutun idatzi dizkio Nafarroako gobernuburua den Miguel Sanz Sesma jaunari. Gutun horien idazketan parte hartu du, besteren artean, Sustapen batzordeburuak.

Euskaltzaindiak, bere agerkarian argitaratu ditu bilkura bereziko hitzaldiak, adierazpena eta Nafarroako gobernuburuarekiko gutunak: *Euskera, 2001, 1.* zenbakian.

III. Erakunde zerbitzuak

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Batzorde eta lantaldeen bidez dihardu Euskaltzaindiak bere jarduera akademikoan, eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira zerbitzu hauek.

III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak bere egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: argitalpen eta banaketa zerbitzua, batzordeen koordinaketa teknikoa, informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere. Garrantzi berezia dute jendearekiko harremanek: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek bai egoitzatik eta baita ordezkaritzetatik bideratzen dira.



Egoitzan, ordezkaritzetako langileekiko koordinazio-bilera; ezkerretik eskuinera: Maixa Goikoetxea, Annie Etxeberri, Itziar Rekalde, Juan Jose Zearreta, Resu Orbe, Gema Insausti eta Jose Luis Lizundia.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoz, Bilboko egoitzaz gainera, Euskal Herriko beste lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak.

Ordezkapenak

Baiona, Bilbo, Iruñea, Donostia eta Gasteizko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek Oroitidazki honen I. Atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren galderak (ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez edo euskararen inguruko kontsulteei erantzunez) etengabe erantzuten dira. Aurten 6.000 inguru lagun gerturatu dira Euskaltzaindira eta 500 inguru ziurtagiri edo irizpen eman.

Honez gain, JAGONET kontsulta zerbitzua abian jarri denetik, interneten bidez 53.914 bisita izan dira Euskaltzaindiaren webgunean.

Erakundearen bilerak

Egoitzan, nagusiki, egin dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostiako ordezkarietan ere tartekatu diren. Aurten, bi osoko bilkura egin ditu Iruñean Euskaltzaindiak.

Donostiako bulegoan ere bildu dira Gramatika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa batzordeak eta Jagon saileko Corpus batzordea eta Euskalkien lantaldea. Bilbon, Iruñean eta Gasteizen, Onomastika batzordea bildu da.

Denetara, 164 bilera egin dira 2001. urtean zehar.

Zuzendaritza

Gutxienez hilean bi aldiz biltzen da. Idazkariordeak antolatzen du kudeaketa dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Eragile teknikaria arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die Idazkariorde-kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere eragile teknikariak burutzen ditu.

Euskaltzaindiko informatika eta telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan egindako lan nagusiak:

Mantenu lanak

Mantenu-mota eskaeren izaera	Mantenu-eskariak (ehunekotan)
• Sail bakoitzeko ekipamendu berezia	21%
• Laguntza tekniko behinena	18%
• Internet-zerbitzuak	16%
• Instalazio, hobekuntza eta konfiguratzak	15%
• Aginduriko ofimatika lanak	13%
• Birus informatikoen kontrako neurriak	9%
• Hardware matxurak	5%
• Datuen segurtasuna	3%

Informatizazio egitasmoak

- 1999-2000: Zerbitzuaren hasierako balantzea
- DAGERRE egitasmoa (Azkue Bibliotekako funtsen digitalizazioa)
- Euskaltel Integra plana (telekomunikazio gastuak egokitzeko kudeaketa)
- JAGONET (Interneten bidezko hizkuntza-kontsulten zerbitzua hobetu)
- Euskaltzaindiaren webguneko edukien mantenurako prozedurak zehaztu
- Euskaltzaindiko INTRANETA abian jarri
- Olaso Dorreko inbentarioa egiteko tresna informatikoa sortu
- OEHren bulegoa lekuz aldatzean telekomunikazio sistema berria ezarri
- Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra: Teknologia berrien gunea prestatu
- Trebiñoko toponimiaren datu-bilketarako aplikazio berria egin
- Gasteizko ordezkarietako informatikaren egoera hobetzeko plangintza burutu
- Ekonomia-kudeaketarako sistema. Banketxeekiko lotura telematikoa gauzatu
- EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia) interneten bidezko kontsulta zerbitzua sortu
- Absys Web instalazioa. Azkue Bibliotekako katalogoa Interneten jarri
- Durangoko Azokan Euskaltzaindiaren teknologia berrien aretoa antolatu.

Zabalkunde eta Prentsa bulegoa

Zerbitzu hau 2000. urtean sortu zen Erakundearen eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoarekin, gizarteak Akademiaren jardunaren berri izan dezan. Zerbitzuak zeregin hauek ditu:

- Hedabideekiko komunikazio zuzena, Akademiaren jardunaren berri emateko.
- Euskaltzaindiaren historiaz eta kideez informazioa osatzea eta eguneratzea
- Erakundearen webgune eta antzeko berri-emanaldietan laguntzea.

2001. urte honetan, XV. Biltzarreko prentsa-zerbitzuko bulegoan, Lekeitioko Barne Jardunaldietan eta "Euskararen egoera Nafarroan" gaiaz Iruñean egin den ekitaldi publikoan, besteak beste, izan du prentsa zerbitzuak beren-beregiko garrantzia.

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkarietako aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gaiez, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurretarako. Euskaltzaindiak berak antolatu dituzenez gain, 2001. urtean zehar, egoitzan, adibidez, euskarrikiko lotura duten beste hamazortzi erakunde eta elkartek erabili dute aretoa.

Talde bisitak

Euskaltzaindiak, euskararen erakunde ofiziala den aldetik, euskal gizartearengan jakin-mina sortzen du eta, horregatik, hainbat elkartetatik eta ikastetxetatik gerturatzen dira

Akademiaren jarduera bertatik ezagutzeko. Horrela, 2001. urtean egoitzan 53 talde izan dira eta Gasteizko ordezkartzan 12 ikastetxetako ikasle-talde.

25 urte Euskaltzaindian lanean

Azaroaren 30ean, egoitzan, Euskaltzaindiaren zilarrezko domina jaso dute Ricardo Badiola Uriarte Argitalpen eragileak eta Nerea Altuna Ateka, Azkue Bibliotekako teknikariak, Euskaltzaindian hogeita bost uste lanean aritu direlako. Domina ematerakoan, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie bi omenduei, Akademiarentzat hainbat urtez leial eta langile zintzo izan direlako. Ricardo Badiolak, bi omenduen izenean, esker



Egoitzan, azaroaren 30ean, Euskaltzaindiaren zilarrezko domina ematea; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Ricardo Badiola eta Nere Altuna.

onezko aitopren-gutuna irakurri du, euskalgintzan -eta bereziki Euskaltzaindian- urte luzeetan zehar lagun eta lankide izandakoei eskerrak emanez.

Donostiako ordezkartza

Aurretik aipatu denez, ordezkartza honetan biltzen dira batzorde gehienak. Aurten 50 bilera antolatu dira, horietarik Erakundearenaz gain, Herri Administrazioiko Batzorde Teknikoa eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa - Euskaltzaindia literatura sarien epaimahakideenak.

Ordezkartza honetan kokatzen da JAGONET zerbitzua, hizkuntza kontsultak interneten bidez eskaintzen dituenak.

Gasteizko ordezkartza

Ordezkartza honetan ohiko eginkizunez gain, urte hasieratik iraila bitartean, aurten Euskaltzaindiko XV. Biltzarraren prestaketa lanek eta biltzarkideekiko harremanak izan dute

leku garrantzitsua, Batzorde Akademikoaren eta Antolaketa Batzordearen arteko koordinazioa bertatik eraman baita. Estatuko Unibertsitateetako Linguistika eta Historia Departamentuetara, Europako Hizkuntzalarien foroetara eta Euskal Herriko administrazioetara barreiatu ditu Biltzar honen egitasmo eta nondik norakoak. Baita ere, irakaskuntza eta itzul-pengintzan diharduten profesionaleengana.

Azkue Bibliotekako zuzendariaren ardurapean, Gasteizen hasi da liburutegien katalogatzea eta bere sorreratik gaur egun arteko Artxiboaren antolaketa, Akademiaren Artxibo Orokorra izango denaren ordenamendu plangintzaren barruan.

Halaber, Gasteizko Toponimiaren eta Trebiñoko Herri Izendegiaren azterketekin dihardute ordezkaritza honetan bost ikertzailek. Onomastikari dagokion atalean zehatzago azaldu da 2001. urtean egindako lana.

Gramatika batzordeko ohiko azpiegitura eramaten da.

Iruñeko ordezkaritza

- Martxoaren 30ean, Iruñeko ordezkartzan, 372/2000 Foru Dekretua dela-eta, bezperan izandako bilkura irekiaren ondorioz prestatutako *Adierazpena* onartu du Euskaltzaindiak. Adierazpen hori zenbait erakundetara igorri da, besteak beste, Nafarroako Gobernura.
- 2001ean argitara emandako *Ponte Izendegiaren* banaketa egin da. 500 ale inguru igorri dira Nafarroako erregistro zibil, euskara zerbitzu, ikastetxe, parrokia eta beste hainbat erakundetara.
- Jagon Saileko Euskalkien lantaldeak prestatu duen galdeketa ordezkaritza honetatik bideratu da Nafarroako ikastetxe, unibertsitate, euskara zerbitzu, hedabide eta itul-tzaile zerbitzuetara, ondoren erantzunak jasoz.
- Berriobeitiko Kontzejuko lehendakariak hala eskatuta, herri horretako kale izendegi euskaratua bidali zaio.
- Rafael Ruiz de la Cuesta, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakari jaunarekin elkartu da ordezkaria. Bisitaren helburua erregistro zibiletan Euskal Izendegiaren erabilera ahalik eta hobekien bidera dadin eskatzea izan da. Ruiz de la Cuesta jaunak oso gogo onez hartu du egindako proposamena. *Euskal Ponte Izendegiaren* aurkezpena urriaren 5ean egin da Iruñean. Ekitaldira komunikabideak, erregistro zibilak, parrokiatako erregistro-arduradunak, ikastetxeetako zuzendariak, euskara teknikariak etab. gonbidatu dira, partaidetza ona jasoz.

Baionako Ordezkaritza

2001eko otsailaren 19an, Baionako ordezkartzan, Errepublikako Elkarte Legearen arabera, Iparraldeko Euskaltzaindikoen urteko biltzarra egin da. Hauek izan dira: Jean Haritschelhar, Pierre Charriton, Emile Larre, Beñat Oihartzabal euskaltzainak; Pierre Andiazabal euskaltzain ohorezkoa; Gexan Alfaro, Erramun Baxok, Joseph Camino, Luzien Etxezaharreta, Roger Idiart, Mixel Itzaina, Ramuntxo Camblong, Manex Pagola, Xarles Videgain urgazleak; Aurelia Arkotxa batzordekidea; Annie Etxeberri idazkaria eta Agnes Dufau Ikas elkartekoa.

Baionako Fakultatean, irailaren 20an eta 21ean, IKER taldeak eta Euskaltzaindiak antolatu duten XV. Biltzarreko II. parte Iparraldeko ordezkartzaren azpiegituraz baliatu da.

Baionako ordezkartzan, Uztaritzeko Euskal Kultur Erakundearen euskara zerbitzuak eta Ikas-ek irakaskuntzarako prestatzen dituzten testuei gainbegirada eman zaie euskararen zuzentasuna gorde dezaten.

Frantses estatuko beste erakunde batzuekiko harremanak hasi dira.

EGA (Euskararen Gaitasun Agiria)

Maiatzaren 19an eta ekainaren 9an egin da EGAREN lehen txanda: 68 matrikula eta 43 gaititze izan dira. Urriaren 13an eta 20an izan da bigarren txanda: 23 matrikula eta 16 gaititze.

Bestalde, bilkurak egin dira Jon Casenave irakaslearekin eta hainbat kiderekin EGAREN antolaketa berrikusteko.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik zerbitzua, mota guztietako dokumentuak eskuratuz, antolatuz eta ikerleen eskura jarriz eta, bestetik, batzordea, zeinaren eginkizuna baita lan horiek zehaztea eta eskaintzea.

III.2.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

Biblioteka eta Artxiboa

Erabiltzaile kopurua: 853
Erabiltzaile berriak: 77
Eskaera bibliografiko arruntak: 1.100
Barne mailegu zerbitzua: 180
Erreprografia zerbitzua: 10.000

Dokumentazio eta Informazio zerbitzua

Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: 700 bat.
Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak: 130.

Euskal Herrikoak:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Euskal Irrati Telebista
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Eusko Ikaskuntza
- Eusko Jaurlaritza, Kultura saila
- HABE
- Gerediaga Elkartea
- Udalak: Bilbo, Donostia, Lekeitio, Durango, Mendata, Uitzu eta Iruñea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea (UZEI)

Euskal Herritik kanpokoak

- Fundación Joan Coromines
- British Library
- Larousse argitaletxea
- Elkarlanean
- Planeta argitaletxea
- Santillana argitaletxea
- Harluxet entziklopedia

Bestalde, kontsultak eta eskariak beste herrialde batzuetatik ere heldu dira: Asturias, Katalunia, Armenia, Mexiko eta Estatu Batuetatik.

Eskurapenak

1. Liburuak

	Aleak	Balioa
- Erosiak		22.093 € (3.675.966 pta.)
- Dohainikoak		3.573 € (594.434 pta.)
- Trukezkoak		4.139 € (688.623 pta.)
Orotara	1.545	29.805 € (4.959.023 pta.)

2. Aldizkariak

Bizirik dauden 432 aldizkari.

3. Erosketa bereziak

- Alfonso Maria de Liguori: *Sacramentu chit santuari eta Maria guciz santari...* Gregorio Arrueren itzulpena, 1900.
- Anglade, J.: *Les troubadours*, 1929.
- Barriola, A.: *Lagun txar bat*, 1912.
- Bourchenin, D.: *Etude sur les académies protestantes en France au XVIe et XVIIe siècle*, 1882.
- Brun, A.: *Recherches historiques sur l'introduction du français dans les provinces du Midi*, 1923.
- *Chansons populaires des Pyrénées françaises*, 1926.
- Des Monstiers, J.: *Jean des Monstiers ... sa vie et sa correspondance*, 1895.
- Dezeimeris, R.: *De la renaissance des lettres á Bordeaux au XVIe siècle*, 1864.
- Gelis, F.: *Histoire antique des Jeux floraux depuis leur origine jusqu'a leur transformation en Académie (1323-1693)*, 1912.
- *Istoria Petri & Pauli: mystere en langue provençale du XVe siècle*, 1887.
- Lanusse, M.: *De l'influence du dialecte gascon sur le langue française*, 1893.
- *Lettres á Gregoire sur les patois de France, 1790-1794*, 1880.
- Menéndez Pidal, R.: *Orígenes del español*, 1929.

Azkue Bibliotekako katalogazio zerbitzua

Urteko funts arruntak katalogatzeaz gain, lan nagusia aldizkarien katalogoa egitea izan da, hots, aldizkariak ABKn (Azkue Bibliotekaren Katalogoa) integratzea.

Funts arruntan atalean guztira 1.545 dokumentu berri katalogatu dira. Aldizkariei dagokienez, berriz, guztira 1.881 izenburu katalogatu dira, ISBD (S) araua segituz. Gainera, aldizkari guztiak birkokatu dira, HU (Humboldt), UR (Urkixo) eta LA (Lacombe) kodeak sortuz. Aldizkarien katalogoa guztiz burutu ez bada ere, webgunean integratu da ABKren atal autonomo gisa, azken ukituak egin zain.

Gasteizko ordezkartzan hasi du, arestian esan bezala, Azkue Bibliotekak bertako liburuaren katalogatzea, ABKn integratuz.

Horretaz gain, hurrengo atalean aipatuko den Lacombe ondarearen katalogoa ere egin da.

Olaso Dorrea Sorrerakundearekiko hitzarmena

Euskaltzaindiak Olaso Dorrea Sorrerakundearekin 2001. urterako sinaturiko hitzarmenaren ondorioz, katalogatu eta, zati batean, digitalizatu da fundazio horren jabetzapekoa den Georges Lacombe euskaltzain zenduaren ondare bibliografikoa.


Hartara, 1.915 dokumentuk osatzen duten ondare hori ABKn integratu da atal autonomo gisa, eta horietako 195 digitalizatu, ADOBE ACROBAT 4.0 programaren bidez. Eskari puntualei erantzuteko, Lacombe ondareko liburuez gain beste zortzi liburu ere digitalizatu dira, guztira 232 CD betez.

Lacomberen ondare bibliografikoa katalogatu eta digitalizatzeko hitzarmena dela-eta duen harremanaz gain, Euskaltzaindiak Olaso Dorrea Sorrerakundea bestelako egitasmo batzuetan laguntzen eta aholkatzen du. Horrela, Azkue Bibliotekak *Monzon-Ganuja* ondare bibliografikoa atontzeko eta inbentariatzeko proiektua eta *Olaso Dorreko Artxiboa* taxutzeko proiektuak prestatu ditu. Lehen, 2001ean burutu da.

Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra: Katalogoa eta Erakusketa

Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra dela eta, egin den erakusketaren katalogoa osatzeko R. M. Azkue eta Julio Urkixoren bibliografia hautatu eta egokitu da. Guztira 125 sarrera ditu katalogo horrek, eta 44 orrialdeko liburuxka batean eskaini da.

Katalogoaz gain, R. M. Azkue eta Julio Urkixoren bibliografiari buruzko erakusketa eskaini da Euskaltzaindiaren egoitzan, 15 egunez.



R. M. Azkue eta Julio Urkixoren katalogoaren azala.

Horrezaz gainera, beste lau erakunde hauek antolatutako erakusketetan laguntza eman da: Gerediaga Elkarte, Mendatako Udala, Lekeitioko Udala eta Durangoko Arte eta Historia Museoa.

III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

ABK zuzentzea eta osatzea

Aurreko urteetan bezala, katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzen eta erabakitzen jarraitu du batzordeak, hots, gaiak, izenburuak, egileak, erakundeen izenak eta beste, egokitzen eta erabakitzen.

Ildo honetan, autoritateak edo sarrera nagusien katalogoa osatzen eta zuzentzen jarraitu da, batez ere egileen sarrerak eta izenburu hautatuak. Bereziki ondoko kategorietan orrazketa orokor bat egin da: euskal egileak, santu eta santak; aita santuak eta apezpikuak, eliza eta monasterioak, izenburuak eta zenbait eliz elkarte.

Hortaz gain, katalogazio-erregela eta terminologia-zerrenda hauek onartu dira:

- 14. katalogazio-erregelaren 2. eranskina: *Banako egileen sarrera nagusien etengabeko zuzenketa eta eguneratzea.*
- 18. termino zerrenda.

Bestalde, hainbat erakundetako biblioteka (HABE, Tolosako Udala, Xenpelar dokumentazio-zentrua, Eusko Jaurlaritzako bibliotekak, eta abar) Euskaltzaindiari zuzendu zaizkio beraien euskarazko katalogatze sistema bateratu baten laguntza eske. Eusko Jaurlaritzako Kulturako Saileko Ondare Zuzendaritzarekin harremanak hasi dira egitasmo hori gauzatu ahal izateko.

Lamiategi egitasmoa

Lamiategi egitasmo horren helburua euskal testu garaikideen datu-base informatiko berria sortzea da. Hori gauzatzeko batzordearen aholku akademikoak jaso dira.

Aldizkariaren norabide berria

2001ean egiten ari zen aldizkarien katalogoaz baliatuz, atal horri buruzko bi txosten prestatu eta eztabaidatu dira.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2001. urtean:

1. *Euskera agerkaria*

- *Euskera*, 2000, 3. Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki eta adierazpenez gain, hauek dira gai nagusiak: Andres Iñigoren sarrera-hitzaldia, Gerhard Bähr-en mendeurrena, Nafarroa Oinez-en 2000. ekitaldiko txostenak. 580 orrialde ditu.
- *Euskera*, 2001, 1. Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki eta adierazpenez gain, hauek dira gai nagusiak: Herri Literaturako VI. Jardunaldiak, Gerhard Bähr eta R. M. Azkueren urteurrenak, Euskararen egoera Nafarroan. 546 orrialde ditu.

2. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*

Hauek dira 2001ean zehar, 3. karpetan, XIX. sortan argitaratu diren hizkuntz arauak:

- 109. Komuntadura aposizioetan (berrikusia)
- 112. Hiztegi Batua: *a-abolizionista*
- 113. *Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin
- 114. *Nahi / gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin
- 115. Zehargaldera orokorretako aditz-atzizkia : *-(e)n* eta *-(e)netz*
- 116. *-eLAKO* eta *-eN* atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan.

3. *Euskaltzaindiaren 2000ko Oroitidazkia*

Liburu honetan, Akademiak urte horretan buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak eman dira. Liburu honek 284 orrialde ditu.

4. *Gueroco guero*: Fr. Pedro Antonio Añibarro

"Euskararen lekukoak" bildumako 22. liburukia. Edizio kritikoa Blanca Urgell Lázarorena da. Argitaratzeko babesa Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailarena izan da. 774 orrialde.

5. *Euskal izendegia. Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms*

Liburu hau argitaratzeko babesa Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak eman du. 380 orrialde ditu.

6. *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak / Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*

Liburuki hau argitaratzeko babesa EUDELEk (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eman dute. 178 orrialde ditu.

7. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental. Tomo I. Estudio dialectológico*

Pedro de Yrizarrek paratua. Garazi eta Amikuzeko azpieuskalkiarena: Garaziko ekialdeko, erdiko, mendebaldeko eta Oztibarreko eta Landibarreko barietateak. Argitalpen honetarako diru-babesa Euskal Herriko Unibertsitateak eman du. 438 orrialde.

8. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental. Tomo II. Estudio dialectológico*

Pedro de Yrizarrek paratua. Nafarroa Behereko azpieuskalkia aztertzen da, Garazi, Arberoa eta Amikuzeko barietateak, hain zuzen ere. Argitalpen honetarako diru-laguntza Euskal Herriko Unibertsitateak eman du. 504 orrialde.

9. *Ermua - Eitzaga: leku-izenak*

Onomasticon Vasconiae, 22. Fernando Aranberri Odriozolak paratua da. Liburuki honetan Ermuko uriko toponimia historikoa eta lekukotuak biltzen dira eta baita Zaldibarko Eitzaga auzunekoak ere. Ermuko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesari esker argitaratu da. 484 orrialde ditu.

Saritutako lanen argitalpenak

Lan hauek, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak antolatzen dituen sariak dira.

10. *Narrazioak eta olerkiak*

2000. urteko Resurreccion Maria Azkue saria irabazitako 21 lanen argitalpena. 128 orrialde.

11. *Historia lazgarria*

Aitor Arana. 2000ko Txomin Agirre eleberri saria. 110 orrialde.

12. *Aldi joana, Joana*

Karlos del Olmo. 2000ko Toribio Alzaga antzerki saria. 90 orrialde.

13. *Amodioa batzuetan*

Juan Ramón Madariaga. 2000ko Felipe Arrese Beitia olerki saria. 98 orrialde.

14. *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*

Patxi Juaristi. 2000ko Mikel Zarate saio saria. 132 orrialde.

III.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpen salmenta

Banaketa:

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du, gehienbat. Hala ere, Euskaltzaindiaren *Arauk* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2001. urtean, 2.276 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 354. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburudendei 71 ale saldu zaizkie, banatzaileei 1.935 eta gizabanako eta erakunde desberdinei 1.659.

Ohiko salmentekin, eta *Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 15.466.301 pezetakoa izan da, 92.954 €. Iaz baino 1.502.740 pta. (9.031 €) gutxiago.

Merkataritza ikuspegia

Liburudendei eginiko salmentak, gutxi gorabehera, bere horretan mantendu dira. Banatzaileei eginiko salmentak eta, batez ere, gizabanakoei eginikoak, nabarmen egin dute gora. Zergatia, Euskaltzaindiak argitaraturiko *Euskal Izendegia* eta *Hiztegi Batua* argitalpenek izan duten arrakastan aurki dezakegu. Bestalde, zer esanik ez, horiek izan direla gehien saldu diren liburukiak.

2000. urtean Euskaltzaindiak bere webgunea martxan jarri bazuen ere, 2001. urtean webgune hori osatzeari eta eguneratzeari ekin dio. Bertan Euskaltzaindiaren argitalpen katalogoa aurki daiteke eta eskariak egin (jartza@euskaltzaindia.net).

Trukezko harremanetan 387 ale banatu dira.



Durangoko Azokan, abenduaren 8an, Euskaltzaindiaren teknologia berrien aretoa; ezkerretik eskuinera: Ricardo Badiola eta Iñaki Kareaga.

Azokak

Durangoko XXXVI. Euskal Liburu eta Disko Azoka, abenduaren 5, 6, 7, 8 eta 9an izan da eta hiru saltoki edo eremutan aritu da Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua. Horietako bat, nobedade gisa, 'teknologia berri' en aretoa izan da. Bertan, Euskaltzaindiaren webgunean dauden atal desberdinak aurkeztu dira, batez ere, hiru zerbitzu nabarmendu direlarik, alegia: Euskal Onomastikaren datutegia, Akademiaren adierazpen, Arau eta irizpideak eta Azkue Bibliotekaren Katalogoa.

Beste zenbait azoka:

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokataraz, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira. Hiriburuetan eta Ondarroan, Lekeition eta Zarautzen izan dira azoka garrantzitsuenak.

Gordailua

Euskaltzaindiak Bilbo ondoko Etxebarri herrian daukan Gordailuak, besteak beste, bi xede nagusi izan ditu, hots:

1. Gordailua

- Salgai dauden argitalpenen gordailu izatea, ohi bezala.
- 2001. urtearen hasieran, salgai dauden argitalpen guztien inbentario zehatza egitea. Baita ere argitalpenen kokatze eta berrantolatze lanekin jarraitzea.

2. Artxiboa:

Erakundearen artxiboak, betetzen duen funtzioaren arabera, bi alor ditu:

- Barneko artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoitzi duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpoko artxiboa: Euskaltzaindiak izandako harremanak kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosi, trukatu zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia, hots, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar gordetzeko erabilia.

Ohiko lan hauetatik aparte, aipatzekoa da zerbitzu honek Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarraren barnean, Erakundeko Informatikariarekin lankidetzan, *Euskara eta teknologia berriak* lemapean antolatu duen erakusketa. Bertan, hizlari-ikusle eta entzule modura, euskararen alor desberdinetako erakunde eta enpresa askotako gizase-meak izan dira.

IV. Aurrekontuak

IV.1. BALANTZEA

GASTUAK

474.102.654 Pta.

1. Ibilgetu materiala	1.702.110,-
2. Kanpo zerbitzuak	66.933.053,-
- Ikerketa eta garapen gastuak	7.382.963,-
- Egitura gastuak	15.883.122
- Alokatzekak	2.549.875,-
- Konponketak eta zaintzekak	7.585.201,-
- Zerbitzu profesionalak alokatzea	7.444.722,-
- Bidalketak	1.528.818,-
- Aseguruak	735.193,-
- Banku zerbitzuak	1.157.991,-
- Zabalkunde gastuak	3.219.387,-
- Horniketarak	18.431.010,-
- Bestelako zerbitzuak	1.014.771,-
3. Batzorde eta Egitasmoak	204.024.594,-
- Euskara Batua	13.323,-
- Hiztegi Batua	8.409.751,-
- Orotariko Euskal Hiztegia	72.786.590,-
- Gramatika	2.958.983,-
- EHHA (Hizkuntza Atlas)	19.570.523,-
- Onomastika	2.932.159,-
- Herri Literatura	1.453.003,-
- Literatura Ikerketa	1.884.731,-
- Jagon-Corpus	741.214,-
- Jagon-Sustapen	508.592,-
- JAGONET	3.558.884,-
- Azkue Biblioteka	14.965.123,-
- Toponimia Egitasmoak	22.882.680,-
- XV. Biltzarra	8.978.688,-
- Uzeiren hitzarmena	42.380.350,-
4. Argitalpen bereziak	14.288.606,-
5. Zergak	238.273,-
6. Gizabanakoen ordainketak	150.583.783,-
7. Beste zenbait gestio gastu	2.456.430,-
8. Finantza gastuak	4.137.373,-
9. Bestelako gastuak	5.172.003,-
10. Amortizazio zuzkidurak	24.566.429,-

SARRERAK		474.102.654 Pta.
1. Salmentak		14.531.386,-
2. Ustiaketarako laguntzak		324.863.037,-
- Hezkuntza Ministerioa	115.000.000,-	
- Eusko Jaurlaritzza	111.646.010,-	
- Nafarroako Gobernua	18.598.313,-	
- Arabako Foru Aldundia	9.074.630,-	
- Bizkaiko Foru Aldundia	29.188.499,-	
- Gipuzkoako Foru Aldundia	18.598.313,-	
- Iparraldeko Herri Aginteak	21.025.000,-	
- Udalak	1.732.272,-	
3. Laguntza helburutuak		60.979.323,-
- Herri Aginteek (Uzei)	37.380.349,-	
- Herri Aginteek (XV. Biltzarra)	7.464.722,-	
- Gasteizko Udala (Toponimia)	10.000.000,-	
- Bestelako laguntzak	1.410.600,-	
- Argitalpenetarako laguntzak	4.723.652,-	
4. Kudeaketa sarrerak		35.151.546,-
- Zerbitzu desberdinak	18.897.386,-	
- Hitzarmenak	16.254.160,-	
5. Finantza eta aparteko sarrerak		1.593.405,-
6. Ekitaldiko kapital laguntzak		15.961.955,-
7. Sarrera diferentzia		21.022.002,-

V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak

V. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEKIKOAK

V.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO ETA NAFARROAKO HERRI AGINTEAK

2001eko Protokoloa sinatu

Apirilaren 10ean sinatu du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Herri Aginte horiekin Euskaltzaindiak prestatu duen Hitzarmenaren aurtengo Protokoloa edo Eranskina. Herri Aginteen aldetik hauek sinatu dute aipatutako Hitzarmena: Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek. Nafarroako Gobernuak ez du aurten sinatu. Euskaltzaindiak ordezkariak jarri ditu Gobernu horrekin gaia bideratzeko.

Errendapen-txostenak

Maiatzean bidali zaizkie Herri Aginteei 2000. urte osoari dagozkion errendapen-txosten hauek:

- 2000ko diruen kontu-errendapena.
- 2000ko lanen errendapen-txostenak: Hiztegi Batuko lantaldea, Gramatika batzordea, Onomastika batzordea, Literatura Ikerketa azpibatzordea, Herri Literatura azpibatzordea, Euskara Batuko batzordea, Jagoneko Corpus batzordea, Jagoneko Sustapen batzordea, Argitalpen batzordea eta Azkue Biblioteka batzordea.
- 2001eko lehen hiruhilabetean egitasmo hauek egindako lanen errendapen-txostena: Orotariko Euskal Hiztegia, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Euskararen Herri Hizkeren Atlas eta Azkue Bibliotekako katalogatzea.

Batzorde Teknikoaren bilerak

Maiatzaren 29an bildu da, Donostiako ordezkarietan, Pello Telleria eragile teknikaria batzorde horretako kide hauekin: Koro Urkizu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakoarekin eta Joseba Erkizia, Gipuzkoako Foru Diputaziokoarekin. Euskaltzaindiko egitasmoek eta batzordeek egindako lanez bidalitako errendapen-txostenak aztertzea izan da bileraren xede nagusia.

Azaroaren 21ean ere bildu da Batzorde Teknikoa, eta egitasmo ezberdinek urtariletik irailera arte egindako lanen txostenak aztertu ditu, eta baita batzordeek 2002rako aurkeztutako eginkizunen txostena ere.

Jarraipen Batzordea

Abenduaren 3an, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan bildu da bost Herri Aginteek eta Euskaltzaindiak sinatua duten Hitzarmenaren Jarraipen batzordea. Hauek izan dira bileran:

- Euskaltzainditik: Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta.

– Herri Aginteen izenean: Miren Azkarate, Xabier Aizpurua eta Lorea Bilbao, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saisetik; Pedro Sancristóval, Arabako Diputaziotik; Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputaziotik eta Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Diputaziotik.

V.2. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketen Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Erret Akademientzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakunde kideekin batera.

V.3. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Agintek, 2000. urtean egindako Euskal Herrirako Berriazko Hitzarmenean, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio ezberdinak beren laguntzak ematen hasiak dira Euskaltzaindiari.

Estatu frantziarra

Euskaltzaindiaren eta Estatu frantziarraren arteko 2001eko hitzarmena sinatu da. Jean Haritschelharrek sinatu du Euskaltzaindiaren izenean eta Michel Berthod jaunak –Kultura Gaietako eskualde zuzendariak– Estatu frantziarraren izenean.

Akitania

Era berean sinatu dute hitzarmena 2001. urtean Euskaltzaindiak eta Akitaniak. Euskaltzaindiaren izenean Jean Haritschelharrek sinatu du eta, Akitaniaren izenean Jean-Luc Mercadie jaunak, Akitaniako Zerbitzu zuzendari orokorrak

Pirinio Atlantikoak

Irailaren 18an sinatu da 2001. urteari dagokion hitzarmena, Euskaltzaindiaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren artean. Akitaniaren izenean, Jean-Jacques Lasserre jaunak –Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko presidenteak– sinatu du eta, Jean Haritschelharrek, Euskaltzaindiarenean.

V.4. UDALAK

EUDEL

Uztailaren 11n sinatu da Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eta Euskaltzaindiaren arteko bigarren hitzarmena, Toki Erakundeei laguntza teknikoa emateko izen toponimikoen arloan.

Oraingoaren helburua, udalei, kontzejuei eta mankomunitateei, industrialde, auzoberrri, etxebizitza-poligono, naturgune, parke, atsedenleku, zerbitzugune, katalogatutako herribaso eta bestelako izeneei buruzko irizpenak egitea da. Horretarako 5.000.000 pezetako dirulaguntza eman du EUDELEk. Iraupena urtebetekoa izanik, urtero luza daiteke.

Gasteiz

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalarekin sinatua du hitzarmena, zeinetan hiriburu horretako ordezkarietan, udalbarrutiaren toponimia ikertzen eta normalizatzen diharduen lantaldea babesten duen, batik bat. Horrez gain, Gasteizko ordezkariaren herri-zerbitzuen gastuetarako ere laguntza ematen da.

Donostia

2001eko azaroaren 6an, Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak onetsi du Euskaltzaindiari 120m² inguruko lokala lagatzea, hiriko Xalbador Bertsolaria kalean.



Donostian, uztailaren 11n, Udalak Euskaltzaindiari utzitako bulegoen inaugurazio-ekitaldia; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Odon Elorza eta Ibon Sarasola.

Toki hau Akademiaren egitasmoetarako erabiliko da. Une honetan Orotariko Euskal Hiztegiaren lantaldea dago bertan kokatua.

Bilbo

Aurten, XV. Nazioarteko Biltzarra antolatu du Euskaltzaindiak hiriburu honetan, hiri-bilduaren 700. urteurrenaren ospakizunaren bukaeran. Udalak Biltzarraren herena babestu du eta Iñaki Azkuna alkate jauna biltzar horren ohorezko batzordekidea izendatua izan da,



Bilboko Udaletxean, irailaren 17an, Udala Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarreko kideak hartzen; ezkerretik eskuinera: Arantxa Urkaregi, Raúl Fernández de Arroiade, Ander Etxebarria, Iñaki Azkuna, Jean Haritschelhar, Juan Jose Olabarria eta Maria Asis Fernández.

hitzarmen iraunkor baten urratsa izateko asmoz. Udalak biltzarkideak hartu ditu irailaren 17an.

V.5. UNIBERTSITATEAK

V.5.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren 2001eko Eranskina sinatu dute erakunde bi horien ordezkariak, EHUko errektorea den Manuel Monterok eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, lan hauek bideratzeko:

- *Morfología del verbo auxiliar suletino.*
- *Txillardegiren omenaldia* prestatzea.
- Gerhard Bähr-en *Lan hautatuak* prestatzea.

V.5.2. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

2001eko abenduaren 20an sinatu da, Deustuko Unibertsitatean, Euskaltzaindiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lehen lankidetza-hitzarmena. Hona hemen hitzarmen horren ezaugarri batzuk:



Deustuko Unibertsitatean, abenduaren 20an, Unibertsitate horren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren sinadura-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Jose Maria Abrego.

- Bi erakundeok lankidetzaproiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte.
- Deustuko Unibertsitateak, bertako irakasleek Euskaltzaindian egindako lana kontuan hartuko du, horien curriculumerako meritu gisa.
- Deustuko Unibertsitateko ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte Euskaltzaindian.
- Bi erakundeok elkarren ikerketa-ondareak erabili ahal izango dituzte.
- Erakunde biok, euskal Toponimia normalizatzeko egitasmoak garatuko dituzte elkarlanean.
- Argitalpenak bultzatuko dira elkarlanean.
- Hitzarmen horren jarraipenerako sei kidek osatuko duten Jarraipen batzordea gauzatuko da.
- Hitzarmen hori bost urterako sinatu da. Bi aldeetako inork salatu ezean beste horrenbesteko denboraldi(et)an luzatu ahal izango da.

Hitzarmen horren sinatzaileak hauek izan dira: Jean Haritschelhar, euskaltzain burua eta José María Abrego, Deustuko Unibertsitateko errektorea. Sinadura ekitaldian, honako hauek izan dira: Patxi Altuna, Andres Urrutia, euskaltzain osoak, Rosa Miren Pagola, Juan Manuel Etxebarria, Adolfo Arejita, Jabier Kaltzakorta, euskaltzain urgazleak -Euskaltzaindiakoak eta Deustuko Unibertsitateko irakasle direnak- eta Jose Luis Lizundia Akademiaren idazkariorde-kudeatzailea.

V.5.3. IKER TALDEA

2001eko urtariletik eta 4 urteko iraupena izango duen Hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta hiru erakunde hauek osatzen duten Iker taldeak:

- Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS).
- Bordeleko III. Unibertsitatea / Université Michel de Montaigne.
- Université de Pau et des Pays de l'Adour.

Hitzarmen honen bidez elkarlanerako baldintzak, argitalpenak eta ordezkariak finkatu dira.

V.6. EROSKI

EROSKI Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2000. urtean sinatu zuten hiru urtetako hitzarmenaren arabera, 1.000.000 pezetako (6.000 Euroko) diru laguntza eman dio Fundazioak Akademiari, JAGONET zerbitzua babesteko.

**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /
Organigrama y directorio de Euskaltzaindia /
Organigramme et adresses d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /
Relación de académicos y cargos /
Listes des académiciens et des responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /
Comisiones académicas /
Commissions de travail d'Euskaltzaindia**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /
Organigrama de la Real Academia de la Lengua
Vasca / Euskaltzaindia /
Organigramme d'Euskaltzaindia**


**VI.4. Aurkitegia /
Directorio /
Répertoire**

VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / LISTES DES ACADÉMICIENS ET DES RESPONSABLES

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna
Jose Antonio Arana Martija
Miren Azkarate
Pierre Charritton
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce "Iratzeder"
Andolin Eguzkitza
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar
Andres Iñigo
Xabier Kintana
Henrike Knörr

Emile Larre
Juan Mari Lekuona
Beñat Oihartzabal
Patxi Ondarra
Txomin Peillen
Pello Salaburu
Juan San Martin
Ibon Sarasola
Jose Mari Satrustegi
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta
Antonio Zavala



Euskaltzainak, Lodosan, urriaren 19an, osoko bilkura-egunean /
Los Académicos, en Lodosa, con motivo de la Sesión Plenaria del día 19 de octubre /
Les academiciens à Lodosa, le 19 octobre.

ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / DIRECTION

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua / Presidente / Président
Henrike Knörr, buruordea / Vicepresidente / Vice-président
Patxi Goenaga, idazkaria / Secretario / Secrétaire
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina / Tesorero / Trésorier
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua / Director de la Sección de Investigación /
Directeur de la Section Recherche
Andres Urrutia, Jagon sailburua / Director de la Sección Tutelar / Directeur de la
Section Sauvegarde



*Durangoko Udaletxean, abenduaren 8an, Zuzendaritzaren bilera; ezkerretik eskuinera: /
Ayuntamiento de Durango, 8 de diciembre, reunión de la Junta de Gobierno: de izquierda a derecha: /
À la Mairie de Durango, le 8 décembre, direction; de gauche à droite :*

Jose Luis Lizundia, Juan Jose Zearreta, Beñat Oihartzabal, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar,
Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Andres Urrutia.

ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa: *Juan Mari Lekuona*
Araba / Álava: *Hernike Knörr*
Nafarroa / Navarra / Navarre: *Andres Iñigo*
Iparraldea / Pays Basque Nord: *Pierre Charritton*

ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea / Vicesecretario-gerente / Secrétaire
adjoint et gérant
Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea / Gestor económico / Responsable économi-
que
Prudentzio Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca Azkue
/ Directeur de la Bibliothèque Azkue
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones /
Responsable des publications
Pello Telleria, eragile teknikaria / Gestor técnico / Responsable technique

VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS DE TRAVAIL D'EUSKALTZAINDIA (*)

IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION RECHERCHE

Iker sailburua / Director / Directeur: Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission du DIC- TIONNAIRE

Burua / Presidente / Président: Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Général de la Langue Basque

Arduraduna / Responsable: Iñaki Segurola

Kideak / Miembros / Membres: Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié

Arduraduna / Responsable: Jose Antonio Aduriz

Kideak / Miembros / Membres: Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAM- MAIRE

Burua / Presidente / Président: Patxi Altuna

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jesus Mari Makatzaga

Kideak / Miembros / Membres: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charriton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

(*) Izendapen hauek 2001 eta 2002rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 2001-2002 / Ces nominations concernent les années 2001 et 2002.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE

Burua / Presidente / Président: Beñat Oihartzabal

Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique

Arduradunak / Responsables: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak / Miembros / Membres: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Seguroa.

IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE

Burua / Presidente / Président: Andres Iñigo

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Mikel Gorrotxategi

Kideak / Miembros / Membres: Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi, Amaia Usabiaga.

Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique

Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Patxi Galé, Jose Antonio González Salazar, Hector Iglesias, Jose Maria Jimeno Jurío, Elena Martinez de Madina, Patxi Ondarra, Jose Luis Ormaetxea, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE

Burua / Presidente / Président: Juan Mari Lekuona

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de la Littérature Populaire

Arduraduna / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Pello Esnal

Kideak / Miembros / Membres: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission de la Recherche Littéraire

Arduraduna / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Lourdes Otaegi

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Altzibar, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis Mari Mujika, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Muñoa, Ana Toledo, Patri Urkizu.

**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKERA UNIFICADO /
Commission du BASQUE UNIFIÉ**

Burua / Presidente / Président: Pello Salaburu

Idazkaria / Secretaria / Secrétaire: Miren Azkarate

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Altuna, Xabier Kintana, Henrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION SAUVEGARDE

Jagon sailburua / Director / Directeur: Andres Urrutia

VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus

Burua / Presidenta / Présidente: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual Rekalde.

Euskalkien lantaldea / Grupo de Trabajo de los Dialectos / Groupe de travail des Dialectes:

Arduraduna / Responsable: Paskual Rekalde

Kideak / Miembros / Membres: Kaxildo Alkorta, Jose Aranzabal, Jon Aurre, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Juan Martin Elexpuru, Iraide Iturri, Manu Ormazabal, Koldo Zuazo.

Komunikabideen lantaldea / Grupo de Trabajo de los Medios de Comunicación / Groupe de travail des Moyens de Communication:

Arduraduna / Responsable: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Komunikabideen ordezkariak.

VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de la Promotion linguistique

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Gotzon Lobera

Kideak / Miembros / Membres: Erramun Baxok, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia.

* * *

EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS STRUCTURELLES

VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des PUBLICATIONS

Burua / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak / Miembros / Membres:

Euskaltzainburuordea: Henrike Knörr

Idazkaria: Patxi Goenaga

Diruzaina: Jose Antonio Arana Martija

Iker sailburua: Beñat Oihartzabal

Jagon sailburua: Andres Urrutia
Miren Azkarate
Juan San Martin

IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Prudentzio Gartzia

Kideak / Miembros / Membres: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Jose Mari Larrarte, Juan San Martin.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Joseba Agirreazkuenaga, Andolin Eguzkitza, Jose Maria Jimeno Jurio, Henrike Knörr.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE

X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique:

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres: Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique:


Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Juan Jose Zearreta

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /
ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /
ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**

E U S K A L T



Z A I N D I A

MELE PLÉNIÈRE

GOBIERNO / DIRECTION

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

BOGGERENTE / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT

1

EKONOMI ERAGILEA /
GESTOR ECONÓMICO /
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE

1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

ERAGILEA /
PUBLICACIONES /
PUBLICATIONS

1

HIZTEGIA /
DICCIONARIO /
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA /
ATLAS LINGÜÍSTICO /
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK /
OTRAS COMISIONES /
AUTRES COMMISSIONS

ZUZENDARIA /
DIRECTOR /
DIRECTEUR

1

ZUZENDARI TEKNIKOAK /
DIRECTORES TÉCNICOS /
DIRECTEUR TECHNIQUE

2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

8

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

3

AGINTA ARDURADUNA /
RESPONSABLE DE VENTAS /
RESPONSABLE DE VENTES

1

ADMINISTRARIA /
ADMINISTRATIVA

1

GARBITZAILEA /
LIMPIADORA /
FEMME DE MÉNAGE

1

VI.4. HELBIDEAK / DIRECTORIO / ADRESSES

EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 81 44
E-mail: info@euskaltzaindia.net
[Http://www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)
Kudeatzailea / Gerente / Gérant: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 27 45
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 81 44
E-mail: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria / Director / Directeur: Pruden Gartzia

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT

Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: (00-34) 94 440 62 58
E-mail: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable: Jon Artza

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA

San Antonio, 41
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: (00-34) 945 23 36 48
Faxa / Fax: (00-34) 945 23 39 40
E-mail: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Henrike Knörr

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf.: (00-34) 943 42 80 50
Faxa / Fax: (00-34) 943 42 83 65
E-mail: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Juan Mari Lekuona

NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE

Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf.: (00-34) 948 22 34 71
Faxa / Fax: (00-34) 948 21 07 13
E-mail: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Andres Iñigo

IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD

Thiers, 18. 1
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf.: (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa / Fax: (00 33) (0) 559 59 45 59
E-mail: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Pierre Charritton

